| 2015EKO UZTAILAREN 24AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 24 DE JULIO DE 2015. |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| BERTARATUAK | ASISTENTES |
| LEHENDAKARIA | PRESIDENTE |

Imanol Landa Jauregi jn.

| ALKATEORDEAK | TENIENTES DE ALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Iñaki Amorrortu Martínez (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Miren Arantza Gutiérrez Paz (EH BILDU)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)

Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**84.- 2015eKO EKAINAREN 30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**84.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 30 DE JUNIO DE 2015.**

2015ko ekainaren 30ean Getxoko Udalbatzak egindako ezohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

Se aprobó por unanimidad el Acta de la anterior sesión extraordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 30 de junio de 2015.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**85.- 2940/2015 ZENBAKIDUN ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA, IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA JAUNAK LAUGARREN ALKATEORDEAREN KARGUA UZTEARI ETA JOSÉ LUIS LANDA ARTECHE JAUNA KARGUDUN IZENDATZEARI BURUZKOA.**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Alkatetza-Udalburutzaren 2015ko uztailaren 2ko 2940 Dekretuaren jakitun egon. Xedapen aldeak hauxe dio hitzez hitz:

1.- Kargua utziaraztea, Ignacio Uriarte Gorostiaga jaunari, laugarren alkateorde gisa.

2.- Izendatzea, Jose Luis Landa Arteche jauna, laugarren alkateorde.

3.- Dekretu honen berri ematea Udalaren Osoko Bilkurari.

4.- Dekretu hau argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

**85.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 2940/2015 DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA SOBRE CESE DE DON IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA COMO CUARTO TENIENTE DE ALCALDE Y NOMBRAMIENTO COMO TAL DE DON JOSÉ LUIS LANDA ARTECHE.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales,

Quedaron enterados del Decreto de la Alcaldía Presidencia nº 2940 de fecha 2 de julio de 2015, que copiado en su parte dispositiva resulta ser del siguiente tenor literal:

1º.- Cesar a D. Ignacio Uriarte Gorostiaga como Cuarto Teniente de Alcalde.

2º.- Nombrar a D. Jose Luis Landa Arteche como Cuarto Teniente de Alcalde.

3º.- Del presente Decreto se dará cuenta al Pleno del Ayuntamiento.

4º.- Publicar el presente Decreto en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**86.- 2946/2015 ZENBAKIDUN ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA, JOSÉ LUIS LANDA ARTECHE JAUNA TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDE IZENDATZEARI BURUZKOA.**

Proposamena irakurri ondoren Paula Amievak hartu du hitza eta EAJren eta PSEren arteko truke politikoa kritikatu

**86.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 2946/2015 DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA SOBRE NOMBRAMIENTO DE DON JOSÉ LUIS LANDA ARTECHE COMO MIEMBRO DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Paula Amieva para criticar el cambalache político entre el PNV y el

du, PSEren planteamendua kontraesankorra izan delako: kanpainan EAJren aurkari bezala agertu eta gero, Tokiko Gobernu Batzordean sartu da.

PSE por la contradicción existente en el planteamiento del PSE en la campaña como oposición al PNV, para luego incorporarse a la Junta de Gobierno Local.

Jose Luis Landak erantzun dio EAJk eta PSE-EEk azken hauteskundeen ondoren hitzartutako akordio orokorraren berri izan duela, eta gogoratu du ez dela trukea, negoziatu egin dutela eta ados jarri direla.

José Luis Landa le responde que le supone al tanto del acuerdo global suscrito entre el PNV y el PSE-EE tras las últimas elecciones y recuerda que no se trata de ningún cambalache sino que ha sido fruto de una negociación y un acuerdo alcanzado.

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales,

LEHENENGOA: Alkatetza-Udalburutzaren 2015ko uztailaren 2ko 2946 Dekretuaren jakitun egon. Hauxe dakar xedapen zatian:

PRIMERO: Quedaron enterados del Decreto de la Alcaldía-Presidencia nº 2946/2015, de 2 de julio de 2015, que copiado en su parte dispositiva dice así:

Izendatzea, José Luis Landa Arteche jauna, Tokiko Gobernu batzarreko kide.

Nombrar a D. José Luis Landa Arteche como miembro de la Junta de Gobierno Local.

**<u>87.- 2985/2015 ZENBAKIDUN ARLO-ZERBITZUETAKO ARDURADUNEN IZENDAPENARI DAGOKION ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA.</u>**

**<u>87.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 2985/2015 DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA SOBRE NOMBRAMIENTO DE RESPONSABLES DE AREAS Y SERVICIOS Y DELEGACIONES REALIZADAS.</u>**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales,

Alkatetza-Udalburutzaren 2015ko uztailaren 2ko 2985 Dekretuaren jakitun egon. Hauxe dakar xedapen zatian:

Quedaron enterados del Decreto de la Alcaldía-Presidencia nº 2985, de 2 de julio de 2015, que copiado en su parte dispositiva dice así:

1.- Arlo edo zerbitzuetako udalkide arduradunak izendatzea jarraian

1.- Nombrar Corporativos responsables de Áreas o servicios a los que a

erantsitako koadroan adierazitakoak.

continuación se indica en el cuadro adjunto.

2.- Dagozkion gastuen programen arduradun politikoak izendatzean aipatutako koadroan islatutako korporaziokideak:

2.- Designar responsables políticos de los programas de gastos correspondientes, a los corporativos que se reflejan en el cuadro citado:

| 1. TALDEA | | CUADRO Nº 1 |
|---|---|---|

| ARLOA/ZERBITZUA<br>ÁREA/SERVICIO | GASTU-PROGRAMAK<br>PROGRAMA DE GASTO | UDALKIDE ARDURADUNA<br>CORPORATIVO RESPONSABLE |
|---|---|---|
| Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloa.<br><br>Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda. | 9202<br>1520<br>1650<br>1600<br>1621<br>1630<br>1331<br>1530<br>4500<br>9330<br>9207<br>1510<br>1610<br>1640<br>1710<br>1511 | Berenezkoa: Joseba Arregi.<br>Ordezkoa: Keltse Eiguren |
| Lehendakaritza Arloa (Zerbitzu Orokorrak, Udaltzaingoa, Babes zibila eta Kale publikoa).<br><br>Área de Presidencia (Servicios Generales, Policía Local, Protección civil y Vía pública). | 9120<br>9290<br>1321<br>9200<br>1320<br>1330<br>1350 | Berenezkoa: Keltse Eiguren<br>Ordezkoa: Koldo Iturbe |
| Gizarte Zerbitzuetako eta parte-hartze komunitariorako Arloa.<br><br>Área de Servicios Sociales e intervención | 2300<br>2310<br>2311<br>2312 | Berenezkoa: Elena Coria.<br>Ordezkoa: Koldo Iturbe |

| | | |
|---|---|---|
| comunitaria. | 2313 | |
| Kultura, Euskara eta Gazteria Arloa.<br><br>Área de Cultura, Euskera y Juventud. | 3350<br>3340<br>3380 | Berenezkoa: Koldo Iturbe.<br>Ordezkoa: Alvaro Gonzalez |
| Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako Arloa.<br><br>Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos. | 0110<br>2210<br>9310<br>9201<br>9340<br>4330<br>4390<br>2410<br>4300 | Berezkoa: Inazio Uriarte<br>Ordezkoa: Joseba Arregui |
| Komunikazio, Herritarren Arreta, Gardentasuna eta Hiritarren partaidetzarako Arloa.<br><br>Área de Comunicación, Atención Ciudadana, Transparencia y Participación ciudadana. | 9250<br>4930<br>4910 | Berenezkoa: Amaia Agirre.<br>Ordezkoa: Irantzu Uriarte |
| Kontratazio, informazio sistemak eta kirol Arloa<br><br>Área de Contratación, sistemas de información y deportes | 3400<br>9203<br>9205 | Berenezkoa: Alvaro González.<br>Ordezkoa: Koldo Iturbe |
| Ingurumena Arloa<br><br>Area de Medio Ambiente | 3110<br>1720<br>3330<br>1730 | Berenezkoa: José Luis Landa<br>Ordezkoa: Keltse Eiguren. |
| Kalitate Zerbitzua Ogasun, Ekonomia-Sustapen eta Giza Baliabideetako Arlora atxikitakoa.<br><br>Servicio de Calidad adscrito al Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos. | 9206 | Berenezkoa: Amaia Agirre<br>Ordezkoa: Inazio Uriarte |
| Irakaskuntza Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuetako eta parte-hartze komunitariorako Arlora atxikitakoa<br><br>Servicio de Enseñanza adscrito al Área de Servicios sociales e Intervención comunitaria | 3262<br>3200<br>3260<br>3261 | Berenezkoa: Keltse Eiguren<br>Ordezkoa: Elena Coria |
| Garapenerako Lankidetza Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuetako eta parte-hartze komunitariorako | 2314 | Berenezkoa: Irantzu Uriarte.<br>Ordezkoa: Elena Coria |

| | | |
|---|---|---|
| Arlora atxikitakoa<br><br>Servicio de Cooperación al Desarrollo, adscrito al Área de Servicios sociales e Intervención comunitaria. | | |
| Turismo Zerbitzua, Ogasun eta Ekonomía-Sustapen eta Giza Baliabideetako Arlora atxikitakoa.<br><br>Servicio de Turismo adscrito al Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos. | 4320 | Berenezkoa:Irantzu Uriarte<br>Ordezkoa: Inazio Uriarte |
| Gazteria zerbitzua, Kultura, Euskara eta Gazteria arlora atxikitakoa.<br><br>Servicio de Juventud, adscrito al Área de Cultura, Euskera y Juventud. | 2316 | Berenezkoa: Irantzu Uriarte<br>Ordezkoa: Koldo Iturbe |
| Berdintasuna zerbitzua, Gizarte Zerbitzuetako eta parte-hartze komunitariorako Arlora atxikitakoa<br><br>Servicio de Igualdad, adscrito al Área de Servicios sociales e Intervención comunitaria. | 2315 | Berenezkoa: Keltse Eiguren<br>Ordezkoa: Elena Coria |

3.- Adieratzen diren jarduketan sinadura eskuordetzea adierazitako titularrei, jarraian 2 zenbakiko koadroan jasotakoarekin bat etorriz.

3.- Delegar la firma de las actuaciones que se expresan en los titulares que se indican, de conformidad con lo recogido en el cuadro nº 2.

| **2. TALDEA** | | **CUADRO Nº 2** |
|---|---|---|

| **IZAPIDEA EDO EBAZPENA<br>TRÁMITE O RESOLUCIÓN** | **ESKUORDEA<br>DELEGADO/A** |
|---|---|
| Idazkari Orokorrak luzatutako ziurtagiriak ontzat ematea<br><br>Visto bueno certificados expedidos por el Secretario General | Lehen alkateordea<br><br>Primer Teniente de Alcalde. |

| | |
|---|---|
| Udalaren aldetik besterekin finantzatzeko konpromiso ekonomikoa behar ez duten diru-laguntzen eskabidea<br><br>Solicitud de subvenciones que no requieran compromiso económico de cofinanciación por parte del Ayuntamiento | Arlo edo zerbituzko zinegotzi arduraduna<br><br>Concejal Responsable de área o servicio. |
| Haren ardura eta erantzukizuneko esparruarekin zerikusia daukaten espedienteak eraentzeko eta ebazteko izapideak; zehatzeko ebazpenak eta beraiek sinatutako ebazpenen aurka administrazio-bidean sartutako errekurtsoak kanpo daude. Honako hau izan ezik :<br><br>- Zerga-Arloan emandako egintzen aurkako berraztertze-errekurtsoen ebazpenak.<br><br>Trámites de gestión y resolución de expedientes que correspondan al ámbito de gestión de su responsabilidad, excepto las resoluciones de carácter sancionador y de recursos administrativos respecto a resoluciones que hayan firmado, salvo<br><br>- Resoluciones de los recursos de reposición contra los actos dictados en materia tributaria | Arlo edo zerbitzuko zinegotzi arduraduna<br><br>Sustapen Ekonomiko eta Giza Baliabideetako Zinegotzia<br><br>Concejal Responsable de área o servicio<br><br>Concejal del Área de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos. |

4.- Eskuordetzez sinatutako agirietan beraren berri eman beharko da.

4.- En los documentos indicados que se firmen por delegación se hará constar la misma.

5.- Kudeatzeari jarraitu eragiteagatik arloetako eta zerbitzuetako berenezko kideen Ordezkoa 1. taldean ageri direnei jarriko zaizkie.

5.- A fin de garantizar la continuidad en la gestión fijar el suplente de los titulares de área y servicios a los que así figuran en el cuadro nº 1.

6.- Alkatetzaren 2015eko ekainaren 26ko 2873/2015 Dekretua ondoriorik gabe uztea.

6.- Dejar sin efecto el Decreto de Alcaldía 2873/2015 de 26 de junio.

7.- Dekretu hau argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

7.- Publicar el presente Decreto en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**88.- EUSKAL HERRIA BILDU UDAL TALDE POLITIKOAK BOZERMAILEZ ALDATU DUEN KONTU EMATEA.**

**88.- DACIÓN DE CUENTA DEL CAMBIO DE PORTAVOZ DEL GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL EH BILDU.**

Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Jakitun egon, nola Euskal Herria BILDU udal talde politikoak bozeramailez aldatu duen, hemendik hara bozeramaile berenezkoa Maite Arraiza Aramendia andrea izango da eta ordezkoak aldiz Ibon Rodriguez Larrinaga jauna, Arantza Gutierrez Paz andrea eta Oier Iturralde Fernández jauna.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**89.- KONTU-HARTZAILETZAK PARATUTAKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ERAKUNDEEN AURREKONTUEI BURUZKO 10/2003 FORU-ARAUAK, ABENDUAREN 2KOAK, 70.6. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ESANETARA DAGOELA, OTSAILAREN 3KO 2/2015 FORU-ARAUAK, BIZKAIKO TOKI ERAKUNDEEN FINANTZA ARRAZIONALIZAZIOARI ETA IRAUNKORTASUNARI BURUZKOAK, EGINDAKO IDAZKETA BERRIAREN ARABERA. KORPORAZIOKO LEHENDAKARIAK IGORRITAKO TXOSTEN JUSTIFIKATZAILEAREN BERRI EMATEA, HALABER.**

Proposamena irakurri ondoren Ignacio Uriartek hartu du hitza eta jakinarazi du bi txostenen berri emango dela: bata, eragozpenen bat izan duten espedienteen gainean Udaleko Kontu-

A propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales,

Quedaron enterados del cambio de portavoz del Grupo Político Municipal Euskal Herria BILBU, de forma que la titular será Dª Maite Arraiza Aramendia y los suplentes D. Ibon Rodriguez Larrinaga, Dª Arantza Gutierrez Paz y D. Oier Iturralde Fernández.

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**89.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME DE LA INTERVENCIÓN EMITIDO EN CUMPLIMIENTO DEL ARTÍCULO 70.6 DE LA NORMA FORAL 10/2003, DE 2 DE DICIEMBRE, PRESUPUESTARIA DE LAS ENTIDADES LOCALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA, EN RECIENTE REDACCIÓN DADA POR LA NORMA FORAL 2/2015, DE 3 DE FEBRERO, DE RACIONALIZACIÓN Y SOSTENIBILIDAD FINANCIERA DE LAS ENTIDADES LOCALES DE BIZKAIA, ASÍ COMO DEL INFORME JUSTIFICATIVO EMITIDO POR EL PRESIDENTE DE LA CORPORACIÓN, PREVISTO EN EL MISMO ARTÍCULO.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Ignacio Uriarte quien indica que se dan cuenta de dos informes, uno el de la Intevencion municipal sobre aquellos expedientes que han tenido

hartzailetzak egindako txostena; eta bestea, alkateak eragozpen horien gainean egindako justifikazio-txostena. Azpimarratu du Kontu-hartzailetzaren eragozpen batek ere ez duela etendurarik eragin eta ikuskatutako akordioen %98,65ek aldeko txostena jaso duela. Alde horretatik, 28 espedienteren kontrako eragozpenak jarri dituzte, eta espediente horien gaineko justifikazioak egin dira, hainbat arloren adierazpenak oinarritzat hartuta. Amaitzeko, iritzi dio txostena udal-kudeaketa egokiaren adierazgarria dela.

algún tipo de reparo y otro emitido por el Alcalde relativo a la justificación que se realiza respecto a los reparos formulados. Resalta que ningún reparo de la Intervención ha sido suspensivo y que el 98,65% de los acuerdos fiscalizados han tenido informe favorable, limitándose el número de expedientes reparados a un total de 28 y que sobre los cuales existe una justificación en base a las manifestaciones realizadas por las diferentes áreas. Finaliza estimando que el informe es un exponente de una buena gestión municipal.

Enrique Pradak esan du, GUKen izenean, deigarria gertatu zaiela txostena Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko Foru Arauan oinarrituta egotea, eta galdetu du ez ote liratekeen udalkideen ordainsariak aipatu behar. Nabarmendu du, baita ere, kudeaketa guztia ez dela egokia izan.

Enrique Prada, en nombre de GUK, indica que les llama la atención que el informe se base en la Norma Foral de Racionalización y Sostenibilidad y pregunta si no se debiera hacer ningún tipo de referencia a los emolumentos de los corporativos. Destaca también que no toda la gestión ha sido correcta.

Ondoren alkateak hartu du hitza, adierazteko, batetik, txostenaren helburua edukian bertan dagoela azaldua; bestetik, txostenak ez dituela udalkideen ordainsariak aipatu behar; eta azkenik, txostenen edukien gainean zalantzarik edukiz gero, zalantzak argitzeko mekanismoak daudela.

El Alcalde interviene indicando que la finalidad del informe se explica en el contenido del mismo y no tiene que tener ningún tipo de referencia a los emolumentos de los corporativos y si existen dudas respecto a cuáles deben ser los contenidos, existen mecanismos para trasladar las mismas.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Alde batetik, Udaleko Kontu-hartzaileak egindako martxoaren 12ko txostenaren (6/2015 zenbakia) edukiaren jakitun egon; txosten hori egin da abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen

Quedaron enterados del contenido del informe de la Intervención Municipal Nº 6/2015, de 12 de marzo, que se emite en cumplimiento del artículo 70.6 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio

Aurrekontuei buruzkoaren, 70.6 artikulua betez, otsailaren 3ko 2/2015 Foru Araua berriki emandako idatzian, Bizkaiko Toki Erakundeen arrazionalizazio eta iraunkortasun finantzarioari buruzkoa. Bestetik, Udalbatzaburuak egindako justifikatzeko txostenaren jakitun geratzea, artikulu berean ezarritakoa.

Histórico de Bizkaia, en reciente redacción dada por la Norma Foral 2/2015, de 3 de febrero, de racionalización y sostenibilidad financiera de las Entidades Locales de Bizkaia, así como del informe justificativo emitido por el Presidente de la Corporación, previsto en el mismo artículo.

**90.- UDAL DIRUZAINTZAREN HIRUHILEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARREN ARTIKULUAN XEDATUTAKOA BETE BEHARREZ (2015KO 1. HIRUHILEKOA).**

Proposamena irakurri ondoren Eduardo Andradek hartu du hitza eta gogoratu du fakturak 60 egunean ordaindu behar dituztela, legez, eta 212 faktura epez kanpo ordainduta daudela eta atzerapen hori justifikatu dutela esanez lehen hiruhilekoan lan gehiago izan dutela, aurreko ekitaldia itxi behar zelako. Alde horretatik, azaldu du 2014ko lehen hiruhilekoan, faktura gehiago izanik, epez kanpo 184 baino ez zirela ordaindu eta, beraz, aurtengo lehen hiruhilekoan kudeaketa-lanak okerrago egin direla. Azkenik, gogoratu du fakturak epe barruan ez ordainduz gero hainbat pertsonari kalte egiten zaiela.

Ignacio Uriartek aitortu du epez kanpo ordaindutako fakturen kopuruak gora egin duela, eta adierazi du hobetzeko ahalegina egingo dutela. Gogoratu du, dena den, fakturak bost egun beranduago ordaindu dituztela, gehienez, eta bigarren seihilekoan kudeaketa asko hobetzen dela.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen,

**90.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME TRIMESTRAL DE TESORERIA EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN EL ARTÍCULO CUARTO DE LA LEY 15/2010 (1º TRIMESTRE DE 2015).**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade que recuerda que la obligación legal de abono de las factura es 60 días y observan que hay 212 facturas pagadas fuera de plazo, cuyo retraso se justifica en que el primer trimestre existe un recargo de trabajo con motivo del cierre del ejercicio anterior. Recuerda que en el primer trimestre del año 2014 con un número de facturas superior, fuera de plazo sólo se pagaron 184 por lo que la gestión del primer trimestre de este año ha sido más deficiente. Finaliza recordando que detrás de las facturas no pagadas en plazo existen personas afectadas.

Ignacio Uriarte interviene reconociendo que ha habido un ligero incremento en las facturas pagadas fuera de plazo y que se esforzarán en mejorar pero recuerda que el retraso máximo en el pago ha sido de 5 días y que en el segundo semestre se mejora la gestión notablemente.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas,

Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

IT 009-2015 Diruzaintzako Txostenaren edukiaren jakitun egon; txosten hori betebeharrak ordaintzeko legezko epeak betetzeari buruzkoa da.

Quedaron enterados del contenido del Informe de Tesorería IT 009-2015 sobre el cumplimiento de los plazos legales para el pago de obligaciones.

**91.- 2015KO 2. HIRUHILEKOKO AURREKONTUAREN BURUTZAPENAREN BERRI EMATEA.**

**91.- DACIÓN DE CUENTA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA 2º TRIMESTRE 2015.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

2015eko 2. hiruhilekoari dagokion Aurrekonturen Exekuzio-egoerak jakintzat ematea, zeinari buruzko dokumentazioa aipaturiko espedientean jasota dagoen.

Quedaron enterados de los Estados de Ejecución Presupuestaria correspondientes al 2º trimestre del ejercicio 2015 cuya documentación consta en el expediente de referencia.

**92.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: AURREKONTUA GEHIGARRIZKO KREDITUZ BALIATUTA ALDARAZI.**

**92.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Kreditu gehigarrien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakintzat ematea:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante crédito adicional:

1794/2015 zenbakidun Dekretua 9.339,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/14. Gobela igerilekuko aulki elektrikoa.

Decreto nº 1794/2015 por un importe de 9.339,00 euros. Crédito adicional 2015/14. Silla eléctrica piscina Gobela.

1829/2015 zenbakidun Dekretua 20.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/15. Hornidura-sareko ekintza zehatzak isuriak kontrolatu eta hautemateko (iturri, hidrante eta ureztatzetan kontagailuak jartzea), eta isuriak dituzten zatiak aldatu eta berritzea; horrekin batera, kontrol sektorialetako emari-neurgailuak jartzea Getxoko edateko ura banatzeko sarearen hainbat sektoretan. I. fasea.

1896/2015 Dekretua; haren bidez, 2012/01 Kreditu Gehigarria onartzen duen 912/2015 Dekretua zuzentzen da.

2092/2015 zenbakidun Dekretua 25.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/16. Getxo Kirolakeko inbertsioak: kiroldegiko kantxa bereizteko olana eta ekipamendu informatikoak.

2113/2015 zenbakidun Dekretua 42.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/17. Jarduera zehatzak saneamendu-sareko zenbait zatitan.

2268/2015 zenbakidun Dekretua 57.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/18. ROMO HI: baimendutako kontrol-erakundeak (gimnasioaren eraikina) instalazio elektrikoa egokitzeko egindako lanak, eta haur-eraikineko hargune elektrikoa aldatzea.

2276/2015 zenbakidun Dekretua 20.550,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/19. Inbertsioak Musika Eskolako altzari eta ekipamendu informatiko batzuetan.

2372/2015 zenbakidun Dekretua

Decreto nº 1829/2015 por un importe de 20.000,00 euros. Crédito adicional 2015/15. Acciones puntuales en la red de abastecimiento dirigidas al control y detección de fugas (colocación de contadores en fuentes, hidrantes y riego) y sustitucióny renovación de tramos que presenten fugas e instalación de caudalímetros de control sectorial en diferentes sectores de la red de distribución de agua potable de Getxo. Fase I.

Decreto nº 1896/2015 por el que se rectifica el Decreto 912/2015 que aprueba el Credito Adicional /2012/01.

Decreto nº 2092/2015 por un importe de 25.000,00 euros. Crédito adicional 2015/16. Inversiones Getxo Kirolak: toldo separador cancha polideportivo y equipos informáticos.

Decreto nº 2113/2015 por un importe de 42.000,00 euros. Crédito adicional 2015/17. Actuaciones puntuales diversos tramos de la red de saneamiento.

Decreto nº 2268/2015 por un importe de 57.000,00 euros. Crédito adicional 2015/18. CP ROMO: acondicionamiento de instalación eléctrica por OCA (edificio de gimnasio) y sustitución de acometida eléctrica a edificio infantil.

Decreto nº 2276/2015 por un importe de 20.550,00 euros. Crédito adicional 2015/19. Inversiones varias en mobiliario y equipos informáticos Escuela de Música.

Decreto nº 2372/2015 por un importe

58.000,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/20. Ekipamendu informatikoa Getxo Antzokiko Musika Eskolarako.

de 58.000,00 euros. Crédito adicional 2015/20. Equipamiento informático para la Escuela de Música del Getxo Antzokia.

2603/2015 zenbakidun Dekretua 16.319,27 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/21. Santa Klara jauregiaren kanpo kartela.

Decreto nº 2603/2015 por un importe de 16.319,27 euros. Crédito adicional 2015/21. Cartel exterior del palacio Santa Clara.

2824/2015 zenbakidun Dekretua 60.500,00 euroko zenbatekoarekin. Kreditu Gehigarria 2015/22. Alderdi politikoen udaletxeko bulegoak berrantolatzeko obra.

Decreto nº 2824/2015 por un importe de 60.500,00 euros. Crédito adicional 2015/22. Obras para reorganizar los despachos de los partidos políticos en el Ayuntamiento.

**93.- AURREKONTUAREN ALDAKETAK FINANTZATZEKO ASMOZ 2014KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREKIN LORTUTAKO ALTXORTEGIKO GELDIKINA 2015KO EGOKI EKITALDEAN GASTU OROKORRETARAKO ERABILTZEA DELA ETA, FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN BEHIN-BETIKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

**93.- DACIÓN DE CUENTA DEL INFORME DE SOSTENIBILIDAD FINANCIERA EN RELACIÓN CON LA UTILIZACIÓN, DURANTE EL CORRESPONDIENTE PERIODO DEL EJERCICIO 2015, DEL REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES OBTENIDO EN LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2014 PARA FINANCIAR MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

1.- Uztailaren 13ko Udal Kontu-hartzailetzaren 8/2015 txostenaren edukiaren jakitun geratzea, finantza-iraunkortasunari buruzkoa, 2015. ekitaldian dagokion aldian 2014ko udal aurrekontuko likidazioan eskuratutako gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabiltzea dela-eta, aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

1º.- Quedaron enterados del contenido del informe de la Intervención Municipal Nº 8/2015, de 13 de julio, sobre sostenibilidad financiera en relación con la utilización durante el correspondiente periodo del ejercicio del 2015, del remanente de tesorería para gastos generales obtenido en la liquidación del Presupuesto Municipal 2014 para financiar modificaciones presupuestarias.

2.- 8/2015 zenbakidun txosten hori eta Idazkaritza Orokorrak komunikazio horri buruz egindako ziurtagiria osoko bilkurari eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailari bidaltzea.

2º.- Remitir dicho informe Nº 8/2015, junto al certificado de la Secretaría General sobre la mencionada comunicación al Pleno, al Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

**94.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.**

**94.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakintzat ematea:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

2156/2015 zenbakidun Dekretua 17.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2015/05 kreditu-transferentzia. Kirol-erakundeetarako diru-laguntzen 4. lerroa.

Decreto nº 2156/2015 por un importe de 17.000,00 euros. Transferencia de credito 2015/05. Línea 4 de subvenciones a entidades deportivas.

2216/2015 zenbakidun Dekretua 16.750,00 euroko zenbatekoarekin. 2015/06 kreditu-transferentzia. Kableatu-sistema egokitzea, eta ekipamenduak eguneratzea udalaren WIFI sarea hobetzeko.

Decreto nº 2216/2015 por un importe de 16.750,00 euros. Transferencia de credito 2015/06. Adaptación del sistema de cableado y actualización de equipos para la mejora de la red WIFI municipal.

2274/2015 zenbakidun Dekretua 20.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2015/07 kreditu-transferentzia. Eguberrietako argiak Getxoko sarbide eta puntu berezietan jartzea.

Decreto nº 2274/2015 por un importe de 20.000,00 euros. Transferencia de credito 2015/07. Instalación de alumbrado navideño en accesos y puntos singulares de Getxo.

2555/2015 zenbakidun Dekretua 153.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2015/08 kreditu-transferentzia. Getxo

Decreto nº 2555/2015 por un importe de 153.000,00 euros. Transferencia de credito 2015/08. Prórroga del contrato

Kirolakeko atezaintzaren, jendearentzako informazioaren, eskudiru-garraioaren eta sarbide eta zaintzako sistemen konponketen eta mantentze-lanen kontratuaren luzapena.

de conserjería, información al público, traslado de efectivos y reparación y mantenimiento de los sistemas de accesos y vigilancia en las instalaciones de Getxo Kirolak.

2654/2015 zenbakidun Dekretua 4.066,00 euroko zenbatekoarekin. 2015/09 kreditu-transferentzia. Buletinetan argitaratzea.

Decreto nº 2654/2015 por un importe de 4.066,00 euros. Transferencia de credito 2015/09. Publicaciones en boletines.

**95.- KREDITUA ERANTSIARAZTEKO DEKRETU BATZUEN KONTU EMATEA.**

**95.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE INCORPORACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Eransketaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakintzat ematea:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante la incorporación de remanentes:

2225/2015 zenbakidun Dekretua 3.701,92 euroko zenbatekoarekin (KE/2015/07 Espedientea)

Decreto nº 2225/2015 (Expediente IC/2015/07) por un importe de 3.701,92 euros.

2388/2015 zenbakidun Dekretua 4.602,67 euroko zenbatekoarekin (KE/2015/08 Espedientea)

Decreto nº 2388/2015 (Expediente IC/2015/08) por un importe de 4.602,67 euros.

2415/2015 zenbakidun Dekretua 34.986,36 euroko zenbatekoarekin (KE/2015/09 Espedientea)

Decreto nº 2415/2015 (Expediente IC/2015/09) por un importe de 34.986,36 euros.

2618/2015 zenbakidun Dekretua 5.340,94 euroko zenbatekoarekin (KE/2015/10 Espedientea)

Decreto nº 2618/2015 (Expediente IC/2015/10) por un importe de 5.340,94 euros.

**96.- 2250/2015 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN**

**96.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO 2250/2015 DE MODIFICACIÓN**

**BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakintzat ematea:

2250/2015 zenbakidun Dekretua 17.468,19 euroko zenbatekoarekin. Mahaikideei dietak ordaintzea 2015eko udal eta autonomia erkidegoko hauteskundeetan parte hartzeagatik.

**PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

Decreto nº 2250/2015 por un importe de 17.468,19 euros. Pago dietas a miembros de Mesa por su participación en las elecciones locales y autonómicas 2015.

**97.- 227/14 ZENBAKIKO PROZEDURARI EAA1-EK EMANDAKO EPAIAREN ETA EPAIA BETEARAZTEKO 2570/2015 ZENBAKIKO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

58/2015 Epaiaren jakitun egon, Administrazioarekiko Auzien Bilboko 1. Epaitegiko 227/14 ohiko prozeduran egokituta, eta haren xedapen-zatian honako hau esaten da hitzez hitz:

*"LAGUNDUZ LAGUNTZA INTEGRALEKO ELKARTEAREN ordezkaritza prozesalak Getxoko Udalbatzak hartutako ebazpenaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtso hau funtsean baietsiz, 2014ko ekainaren 24ko 099. erabakiaren aurkako berraztertzeko errekurtsoa ukatzen duena, administrazio-egintza hori baliogabetu beharra dut eta baliogabetzen dut; hala, demandatutako*

**97.- DACION DE CUENTA DE SENTENCIA RECAIDA EN PROCEDIMIENTO 227/14 JCA1 Y DECRETO 2570/2015 DE EJECUCIÓN DE LA MISMA.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de la Sentencia nº 58/2015, recaida en procedimiento ordinario 227/14 en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de Bilbao, que en su parte dispositiva tiene el siguiente tenor literal:

*"Que estimando sustancialmente el presente recurso contencioso-administrativo interpuesto por la representación procesal de la ASOCIACION DE ASISTENCIA INTEGRAL LAGUNDUZ frente a la resolución del Pleno del Ayuntamiento de Getxo que rechaza el recurso de reposición contra el Acuerdo n099, de fecha 24 de junio de 2014, debo anular y anulo dicho*

*Administrazioari demandatzaileari ordaintzeko kondena jartzen zaio: Ehun eta Hirurogeita Bederatzi Mila eta Hirurehun eta Hemezortzi Euro eta Lau Zentimo (169.318,04 €) 2014/34 eta 2014/41 fakturak ordaindu ez izanagatik sortutako zorraren printzipalaren kontzeptuan. Uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzkoaren, 106. artikuluan ezarritako berandutzako interesak. Kostu prozesalak 1.500 euroko mugarekin."*

*acto administrativo, condenando a la Administración demandada a abonar a la parte actora: La cantidad de Ciento Sesenta y Nueve Mil Trescientos Dieciocho Euros con Cuatro Céntimos -169.318,04 €-, en concepto del principal de la deuda correspondiente al impago de las facturas nO 2014/34 y nO 2014/41. Los intereses de demora previstos en el artículo 106 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa. Las costas procesales con la limitación de 1.500 Euros."*

Gainera, Alkatetzaren 2570/2015 Dekretuaren jakitun geratzea, aipatutako epaiaren betearazpenean emandakoa, eta haren xedapen-zatiak honako hau dio:

Asimismo, quedar enterados del Decreto de Alcaldía nº 2570/2015, dictado en ejecución de la citada sentencia y cuya parte dispositiva indica:

*"1.- Aipatutako 58/2015 epaia betez, LAGUNDUZ LAGUNTZA INTEGRALEKO ELKARTEAK (G48682678) emandako fakturen ondorengo zerrenda ordaintzeko agindua ematea, indarrean dagoen udalaren aurrekontuaren 002 2310 227.32.00 partidan kargatuz, jarraian agertzen diren xehetasunekin eta zenbatekoetan:*

*"1º.- En cumplimiento de la citada sentencia nº 58/2015, ordenar el pago de la siguiente relación de facturas expedidas por la ASOCIACION DE ASISTENCIA INTEGRAL LAGUNDUZ (G48682678), con cargo a la partida 002 2310 227.32.00 del vigente Presupuesto Municipal, con el detalle y por los importes que figuran a continuación:*

| ***Faktura-zenbakia Nº factura*** | ***Faktura-data Fecha factura*** | ***Kontzeptua Concepto*** | ***Zenbatekoa (BEZa salbuetsita) Importe (iva exento)*** |
|---|---|---|---|
| *2014/34* | *31/05/2014* | *Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Aurkezpena Prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio mes de mayo.* | *161.398,06* |
| | | ***Fakturak, guztira Total facturas*** | ***161.398,06*** |

| ***Faktura-zenbaki*** | ***Faktura-data Fecha*** | ***Kontzeptua Concepto*** | ***Zenbatekoa (BEZa salbuetsita)*** |
|---|---|---|---|

| *a Nº factura* | *factura* | | ***Importe (iva exento)*** |
|---|---|---|---|
| *2014/41* | *2/06/2014* | *Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Ematea ekaineko 2 egunetan Prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio 2 días de junio* | *7.919,98* |
| | | ***Fakturak, guztira Total facturas*** | ***7.919,98*** |

*2.- Uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenari buruzkoaren, 106. artikuluan ezarritako interesak ordaintzeko kontzeptuan (indarrean dagoen udaleko aurrekontuaren 005 1100 361.00.00 partidan kargatuz), Lagunduz Laguntza Integraleko Elkateari 389,66 euro ordaintzeko baimena ematea, xedatzea eta betebeharrak onartzea.*

*3.- Erabaki hau Laguntza Integraleko Elkarteari jakinaraztea, bai eta udaleko ondorengo sailei ere: Idazkaritza, Kontu-hartzailetza, Diruzaintza eta Gizarte Zerbitzuak, bai eta Administrazioarekiko Auzien Bilboko 1. Epaitegiari ere."*

*2º.- Autorizar, disponer y reconocer la obligación a favor de la Asociación de Asistencia Integral Lagunduz, de la cantidad de 389,66 euros en concepto de abono de los intereses previstos en el artículo 106 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa y ello con cargo a la partida 005 1100 361.00.00 del vigente Presupuesto Municipal.*

*3º.- Notificar el presente acuerdo a la Asociación de Asistencia Integral Lagunduz,, así como a los departamentos Municipales de Secretaría, Intervención, Tesorería y Servicios Sociales , y al Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 1 de Bilbao."*

**98.- 256/14 ZENBAKIKO PROZEDURARI EAA5-EK EMANDAKO EPAIAREN ETA EPAIA BETEARAZTEKO 3110/2015 ZENBAKIKO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

78/2015 Epaiaren jakitun egon, Administrazioarekiko Auzien Bilboko 5. Epaitegiko 256/14 ohiko prozeduran egokituta, eta haren xedapen-zatian honako hau esaten da hitzez hitz:

**98.- DACION DE CUENTA DE SENTENCIA RECAIDA EN PROCEDIMIENTO 256/14 JCA5 Y DECRETO 3110/2015 DE EJECUCIÓN DE LA MISMA.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados de la Sentencia nº 78/2015, recaida en procedimiento ordinario 256/14 en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 5 de Bilbao, que en su parte dispositiva tiene el siguiente tenor literal:

*Jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa partzialki baietsiz, aurkaratutako administrazio-jarduera Zuzenbidearekin bat ez datorrelako, prozedura honetan aurkaratutako administrazio-egintza baliogabetu beharra dut eta baliogabetzen dut; hala, demandatzailearen eskubideak adierazten du Getxoko Udalak 121.822,63 euro ordaindu diezaiola printzipalaren kontzeptuan, legezko interesarekin areagotuz ebazpen honen hirugarren oinarri juridikoak adierazten duena betez, eta hura berariaz ordaintzera kondenatzen dut. Kostuak Getxoko Udalari jartzen zaizkio, eta haiek mugatzen zaizkio demandatzailearen letradu bezala gidatzeko zatiari eta 3.000 euroko kontzeptu horren gehieneko zifrari."*

*"Estimando parcialmente el recurso interpuesto, por no ser ajustada a Derecho la actuación administrativa impugnada, debo anular y anulo la actuación administrativa impugnada en el presente procedimiento, declarando el derecho de la actora a que el Ayuntamiento de Getxo le abone la cantidad de 121.822,63 euros por el concepto de principal, incrementado con el interés legal conforme expresa el fundamento jurídico tercero de esta resolución, a cuyo pago expresamente le condeno. Se imponen las costas al Ayuntamiento de Getxo limitadas a la parte de las mismas correspondientes a la dirección letrada de la actora y a la cifra máxima por ese concepto de 3.000 euros."*

Gainera, Alkatetzaren 3110/2015 Dekretuaren jakitun geratzea, aipatutako epaiaren betearazpenean emandakoa, eta haren xedapen-zatiak honako hau dio:

Asimismo, quedar enterados del Decreto de Alcaldía nº 3110/2015, dictado en ejecución de la citada sentencia y cuya parte dispositiva indica:

*"1.- Aipatutako 78/2015 epaia betez, Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A. (A48903892) enpresak emandako fakturen ondorengo zerrenda ordaintzeko agindua ematea, indarrean dagoen udalaren aurrekontuaren 005/9201/2270102 partidan kargatuz, jarraian agertzen diren xehetasunekin eta zenbatekoetan:*

*"1º.- En cumplimiento de la citada sentencia nº78/2015, ordenar el pago de la siguiente relación de facturas expedidas por la empresa Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A. (A48903892), con cargo a la partida 005/9201/2270102 del vigente Presupuesto Municipal, con el detalle y por los importes que figuran a continuación:*

| ***Faktura-zenbakia Nº factura*** | ***Faktura-data Fecha factura*** | ***Kontzeptua Concepto*** | ***Zenbatekoa (BEZa barne) Importe (iva incluido)*** |
|---|---|---|---|
| *TB 2014/784* | *26/05/2014* | *Udaleko eraikinen barnealdea garbitzeko zerbitzuaren kanona Canon servicio limpieza interior edificios municipales* | *106.977,64* |
| *TB 2014/83* | *30/05/2014* | *Getxoko hauteslekuak sakonago garbitzea maiatzaren 25ean* | *3.629,27* |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *0* | | *Limpieza especial centros electorales de Getxo el 25 de mayo* | |
| *TB 2014/832* | *30/05/2014* | *Udaleko eraikinen aparteko garbiketak Limpiezas extraordinarias edificios municipales* | *11.215,72* |
| | | ***Fakturak, guztira Total facturas*** | ***121.822,63*** |

*2.- 2014ko ekainaren 24tik ordainketa-data arte sortutako legezko interesaren kontzeptuan (indarrean dagoen udaleko aurrekontuaren 005/0110/3610000 partidan kargatuz), Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A. enpresari 4.839,53 euro ordaintzeko baimena ematea, xedatzea eta betebeharrak onartzea.*

*2º.- Autorizar, disponer y reconocer la obligación a favor de la empresa Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A., la cantidad de 4.839,53 euros en concepto de interés legal devengado desde el día 24 de junio de 2014 hasta la fecha de pago, con cargo a la partida 005/0110/3610000 del vigente Presupuesto Municipal.*

*3.- Erabaki hau Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A. enpresari jakinaraztea, bai eta udaleko ondorengo sailei ere: Idazkaritza, Kontu-hartzailetza, Diruzaintza eta Langileria, bai eta Administrazioarekiko Auzien Bilboko 5. Epaitegiari ere."*

*3º.- Notificar el presente acuerdo a la empresa Inbisa Servicios y Medio Ambiente, S.A., así como a los departamentos Municipales de Secretaría, Intervención, Tesorería y Personal y al Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 5 de Bilbao."*

Ignacio Uriartek eskertu egin du kontu orokorra teknikoki zuzena dela aintzatestea eta eragozpenik ez jartzea, era horretan, onartu ondoren Herri Kontuen Euskal Epaitegian aurkeztu ahal izango dutelako; eta eskertu du baita ere taldeek konfiantza-marjina ematea. Amaitzeko, kontu orokorreko zenbateko nagusiak ekarri ditu gogora: berezko funtsen soberakinek %5,79 egin dute gora, zorra %14,03 jaitsi da, diru-sarrerek %4,57 egin dute gora, zergak ez dira igo eta gastuek %1 baino ez dute gora egin. Gauzak horrela, iritzi dio aurrekontua egoki kudeatu dela, aurrezki garbia sortzearekin batera zerbitzuen prestazioaren kalitateari eutsi diotelako.

Ignacio Uriarte agradece que se reconozca que técnicamente es correcta la cuenta general y no se pongan objeciones y que así, tras su aprobación, se podrá presentar al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y agradece también el margen de confianza prestado por los grupos. Finaliza recordando las magnitudes principales de la cuenta general donde se recoge que los remanentes de fondos propios se han incrementado en un 5,79% en el ejercicio, así como la deuda ha disminuido un 14,03% los ingresos han aumentado un 4,57% sin que hubiera existido incremento en los impuestos, y los gastos se han incrementado un uno por ciento, por lo que estima que se ha dado una buena gestión porque a la vez se ha generado ahorro neto y se ha mantenido la calidad en la prestación de los servicios.

Enrique Pradak azaldu du GUKek espero duela aurrekontu-proiektu berria herritarrek parte hartu ahal izateko epe eta moduan egitea.

Enrique Prada interviene para manifestar que GUK espera poder contar con un nuevo proyecto de presupuesto en tiempo y forma para poder tramitarlos con participación ciudadana.

Proposamena bozkatu dute eta hau izan da emaitza: aldeko 11 boto, EAJ, PSE-EE; eta 14 abstentzio, PP, GUK, EH Bildu eta Ciudadanos.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 14 abstenciones, PP, GUK, EH Bildu y Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz honako hau erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó

2014 urteari dagozkion Getxoko Udaletxearen, bere Erakunde Autonomoen eta Kirol Portuko El Abra-

Aprobar las Cuentas del Ayuntamiento de Getxo, sus Organismos Autónomos y la Sociedad Puerto Deportivo El

Getxo S.A. Elkartearen Kontuak onartzea.

Abra-Getxo S.A. correspondientes al ejercicio 2014.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**108.- XEHETASUNEZKO AZTERKETA BEHIN BETIKO ONESTEA, ANDIKOETXE KALEKO 27KO PARTZELAN GAUR GAURKOZ DAGOEN ERAIKINAREN ORDEZ ERAIKITZEKO DENAREN LERROKADURAK, SESTRAK ETA GEHIENEKO BOLUMENAK ZEHAZTEARREN.**

**108.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA DEFINIR LAS ALINEACIONES, RASANTES Y VOLÚMENES MÁXIMOS DEL EDIFICIO QUE SE LEVANTE EN SUSTITUCIÓN DEL EXISTENTE SOBRE LA PARCELA Nº 27 DE LA C/ANDIKOETXE.**

Proposamena irakurri ondoren bozkatu egin dute eta hau izan da emaitza: aldeko 20 boto, EAJ, PP, EH Bildu eta PSE-EE; eta 5 abstentzio, GUK eta Ciudadanos.

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación obteniendo el siguiente resultado: 20 votos a favor, PNV, PP, EH Bildu, PSE-EE; 5 abstenciones, GUK, Ciudadanos.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumen eta Ondare eta Etxebizitzako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz honako hau erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente y Patrimonio y Vivienda, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA.-
I.- Behin betiko onartzea José María Curto Pérez jaunak, Residencial Andikoetxe, S. Coop.eko Zuzendaritza Kontseiluko presidenteak, aurkeztutako xehetasun azterlana, Andikoetxe kaleko 27.ean dagoen lurzatian dagoen eraikinaren ordez egiten den eraikinaren gehieneko lerrokadurak, sestrak eta bolumenak definitzeko asmoz. Azterlana Arana San Sebastián Arquitectos, S.L.k idatzi du. Kontuan izan beharko dira hasierako onarpenean azaldutako ñabardurak; horiek betetzeko, 2015-07-10ean plano berri bat aurkeztu zen, 03 zenbakiduna.

PRIMERO.-
I.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. José María Curto Pérez, Presidente del Consejo Rector de Residencial Andikoetxe, S. Coop., al objeto de definir las alineaciones, rasantes y volúmenes máximos del edificio que se levante en sustitución del actualmente existente sobre la parcela sita en el nº 27 de la calle Andikoetxe, redactado por Arana San Sebastián Arquitectos, S.L., debiendo tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial, para cuyo cumplimiento ha sido aportado, el 10.07.2015, un nuevo plano 03.

II.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

III.- Interesatuei jakinaraziko zaie, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

BIGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.

II.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

III.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**109.- GUK GETXO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: JESÚS MAGUREGI GORROTXATEGIREN OMENALDIA.**

Iñaki Amorrortuk mozioa irakurri du:

Jesús Maguregi Gorrotxategi, ekainaren 20an hil den getxotarra, Athleticeko atezaina, margolaria, poeta eta 70 urte bete berri dituen Asociación Artística Vizcaína elkarteko kide izan zen.

GUK-Getxok bizilagun ospetsu honi omenaldia egitea proposatzen dugu, haren koadroetako batzuk Kultur Etxean erakustearekin batera, Getxoko elkarteekin eta kulturarekin zeukan lotura kontuan izanik.

Koldo Iturbek esan du Jesus Maguregi laguna zuela eta arratsalde ugari igaro zituela harekin elkarrizketan. Mozioan azaldutakoaz gain, musikaria, idazlea eta kultura-gizona izan zela nabarmendu du, eta gogoratu du Getxoko Musika Eskolan haren obrak

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**109.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK GETXO S/HOMENAJE A JESÚS MAGUREGI GORROTXATEGI.**

Iñaki Amorrortu da lectura a la siguiente moción:

Jesús Maguregi Gorrotxategi, getxoztarra recientemente fallecido el 20 de junio del presente año, fue portero del Athletic de Bilbao, pintor, poeta y miembro de la Asociación Artística Vizcaína que cumple ahora 70 años.

Desde GUK-Getxo proponemos al pleno que se realice un homenaje en memoria de este ilustre vecino acompañado de una exposición de algunos de sus cuadros en el Aula de Cultura, dada la vinculación directa con el mundo asociativo y cultural de Getxo.

Koldo Iturbe interviene para indicar que conocía a Jesús Maguregi con el cual ha compartido, como amigo, muchas tardes de conversaciones y destaca, además de lo explicado en la moción, su faceta musical, de escritor y cultural en general, recordando que

interpretatu dituztela. Adierazi du gobernu-taldea ados dagoela mozioaren mamiarekin, baina iruditzen zaiola gai horiek aurrena familiarekin hitz egin behar direla eta Udalbatzan aurkeztu baino lehen egokiagoa izango zela gai hori Kultur Etxeko eta Musika Eskolako zuzendaritza-batzordeekin jorratzea. Haren iritziz, Udalbatza ez da aintzatespenetarako leku egokia, badirudielako aintzatespenak talde politiko batek aurkezten dituela. Horregatik, zentzuzkoagoa iruditzen zaio gai horiek eremu zabalagoetan jorratzea, Eledunen Batzordean edo antzeko organoetan. Horren harira, azaldu du aintzatespenak egiteko formulak badaudela, Getxoko Udalak urtero ematen dituen sariak kasu. Azkenik, gogoratu du aintzatespen-akordioak adostea kontuzko gaia izaten dela beti eta, horregatik, mozioa atzera botatzea eskatu du.

incluso sus obras han sido interpretadas en la Escuela de Música de Getxo. Indica que el equipo de gobierno participa en el fondo de la moción pero estima que en estas cuestiones primero hay que hablar con la familia y previamente a presentar al Pleno le parecería más adecuado haber tratado en las juntas rectoras de la Kultur Etxea y de la Escuela de Música. Opina que el Pleno no es un lugar adecuado para los reconocimientos a través de mociones ya que da la impresión de que se presenta como algo de un grupo político y cree que es más razonable su tratamiento en ámbitos más amplios como pueden ser la Junta de Portavoces o similares indicando, asimismo, que existen fórmulas de reconocimiento como son los premios que anualmente otorga el Ayuntamiento de Getxo. Finalmente recuerda que adoptar acuerdos de reconocimiento siempre es una tarea delicada por lo que pide que se retire la moción.

Iñaki Amorrortuk jakinarazi du Koldo Iturbek egindako adierazpen batzuekin ados dagoela, baina ez dutela mozioa atzera botako, gobernu-taldeak zuzenketak aurkeztea espero dutelako.

Iñaki Amorrortu indica que si bien asume parte de las manifiestaciones reliazadas por Koldo Iturbe no van a retirar la moción a espera de la enmienda que pudiera presentarse por parte del equipo de gobierno.

Koldo Iturbek zuzenketa bat aurkeztu eta irakurri du:

Koldo Iturbe presenta una enmienda a la que da lectura:

Alde espositiboan gehitu:

Añadir a la parte expositiva:

" …portero del Athletic de Bilbao, pintor, poeta, escritor, músico y compositor y miembro….

" …portero del Athletic de Bilbao, pintor, poeta, escritor, músico y compositor y miembro….

Alde deklaratiboan:

En la parte declarativa:

1. Getxoko Udalak balorean jarri

1. El Ayuntamiento de Getxo quiere

nahi du bere bizitzan Jesus Maguregik egindako lana, arteetako hainbat espresioetan.
2. Getxoko Udalak jarraituko duela, orain arte egin duen bezala, Jesus Mauregiren lanaren berri ematen eta zabaltzen, Andres Isasi Musika Eskola eta Getxoko Kultur Etxearen bitartez, beti ere kontutan izanda Jesus Maguregiren senideen oniritzia eta beraiekin batera.
3. Mozioa honen berri Jesus Maguregiren senideei emango zaie eta komunikabidei orokorrean."

poner en valor el trabajo realizado por Jesús Maguregi en las diferentes expresiones del arte que desarrollo en su vida.
2. El Ayuntamiento de Getxo, seguirá como hasta ahora, dando a conocer y difundiendo la labor de Jesús Maguregi, por medio de la Escuela de Música Andrés Isasi y del Aula de Cultura de Getxo, siempre teniendo en cuenta la voluntad del la familia de Jesús Maguregi y en colaboración con la misma.
3. Se dará cuenta de esta moción a la familia de Jesús Maguregi y a os medios de comunicación en general."

Ondoren Paula Amievak hartu du hitza eta esan du GUKek zuzenketa onetsiko duela familiari zor dion errespetuagatik. Halaber, gogoratu du gobernu-taldeak astelehenean izan zuela mozioaren berri eta atzo arte ez zutela planteamendurik jaso; hori dela eta, eskatu du aurrerantzean gaiak lehenago aurkeztea.

Paula Amieva interviene para decir que GUK acepta la enmienda por resepeto a la familia y recuerda al equipo de gobierno que desde el lunes conocían esta moción y que hasta ayer por la tarde no se les hizo ningún planteamiento, por lo que a futuro piden que las cuestiones se presenten con más antelación.

Gero, Santiago Sainzek GUKi galdetu dio familiarekin hitz egin al duten, Eta Paula Amievak erantzun dio familiarekin zuzenean ez dutela hitz egin, baina mozioa kultur elkarte batzuetako kideek planteatu dutela.

Santiago Sainz interviene para preguntar a GUK si han hablado con la familia a lo que Paula Amieva responde que directamente con la familia no, pero que la moción la han planteado personas que pertenecen a asociaciones culturales.

Arantza Gutierrezek adierazi du EH Bilduk aldeko botoa emango duela, eta gai baten gainean hausnarketa egitea planteatu du: Getxon balio handiko emakume askok ez dute aintzatespenik jaso, eta hori larriagoa da kontuan hartzen badugu historian emakumeek presentzia eta irudi publiko eskasa izan dutela.

Arantza Gutiérrez indica que EH Bildu votará a favor y plantea una reflexión acerca de cuánta mujer anónima ha existido en Getxo que no se ha reconocido su valor, cuestión que se agrava teniendo en cuenta además la poca presencia e imagen pública que se les ha dado históricamente a las mujeres.

Ondoren Raquel Gonzalezek hartu du hitza, PPren izenean, adierazteko

Raquel González interviene en nombre del PP para indicar que apoyarán la

mozioaren aldeko botoa emango dutela eta gogoratzeko PPk mozio bat aurkeztu zuela, plaza bati emakume baten izena jartzeko, eta EH Bilduk kontrako botoa eman zuela.

moción y recordar que el PP presentó una moción para que una plaza llevara el nombre de una mujer a lo cual EH Bildu votó en contra.

Arantza Gutierrezek erantzun dio PPren proposamena zela kale baten izena aldatzea eta horrekin ez zeudela ados.

Arantza Gutiérrez replica que la propuesta del PP era cambiar el nombre de una calle y era con lo que no estaban de acuerdo.

Bozketa egin eta mozio hau aho batez onartu dute:

Sometida a votación, se aprueba por unanimidad la siguiente moción:

Jesús Maguregi Gorrotxategi, ekainaren 20an hil den getxotarra, Athleticeko atezaina, margolaria, poeta, idazle, musikari eta konpositorea eta 70 urte bete berri dituen Asociación Artística Vizcaína elkarteko kide izan zen.

Jesús Maguregi Gorrotxategi, getxoztarra recientemente fallecido el 20 de junio del presente año, fue portero del Athletic Club, pintor, poeta, escritor, músico, compositor y miembro de la Asociación Artística Vizcaína que cumple ahora 70 años.

1. Getxoko Udalak balorean jarri nahi du bere bizitzan Jesus Maguregik egindako lana, arteetako hainbat espresioetan.

2. Getxoko Udalak jarraituko duela, orain arte egin duen bezala, Jesus Mauregiren lanaren berri ematen eta zabaltzen, Andres Isasi Musika Eskola eta Getxoko Kultur Etxearen bitartez, beti ere kontutan izanda Jesus Maguregiren senideen oniritzia eta beraiekin batera.

3. Mozioa honen berri Jesus Maguregiren senideei emango zaie eta komunikabidei orokorrean.

1. El Ayuntamiento de Getxo quiere poner en valor el trabajo realizado por Jesús Maguregi en las diferentes expresiones del arte que desarrollo en su vida.

2. El Ayuntamiento de Getxo, seguirá como hasta ahora, dando a conocer y difundiendo la labor de Jesús Maguregi, por medio de la Escuela de Música Andrés Isasi y del Aula de Cultura de Getxo, siempre teniendo en cuenta la voluntad del la familia de Jesús Maguregi y en colaboración con la misma.

3. Se dará cuenta de esta moción a la familia de Jesús Maguregi y a os medios de comunicación en general.

**110.- GUK GETXO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO ZUHAITZAK BABESTEKO ELIMENA.**

**110.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK GETXO S/INICIATIVA PARA LA PROTECCIÓN DEL ARBOLADO DE GETXO.**

Iñaki Amorrortuk mozio hau irakurri du:

Getxon, hiri barruko bidegunean zuhaitz-espezieak daude, bai eremu pribatuetan, bai publikoetan, eta, hortaz, Getxo udalerri pribilegiatua dela esan daiteke, baina, hala ere, azkenaldian gertakari negatiboak jazo dira gure zuhaitzen ondarea kontserbatzeari eta zaintzeari dagokionez.

Duela gutxi, tamaina handiko lau ale galdu ziren Gobela ibaiaren bazterrean, eta, gainera, aurretik ere, gure ondarearen kontserbazioa izugarri kaltetzen duten beste egoera asko pairatu dira.

Hori dela eta, gaur, honako ERABAKI hau helarazi nahi dugu Udalbatzak onar dezan:

Udalak hiriko zuhaitzen ondarearen eboluzioa diagnostikatzea eta hezkuntza elkarteekin nahiz elkarte kontserbazionistekin 30 urte baino gehiago dituzten espezieak katalogatzeko eta babesteko plan bat ezartzea. Ildo beretik, egiteke dauden egikaritze-unitateek edo onartze partzialek zuhaitzen katalogoa errespetatu behar dute, historikoa edo interesekoa.

Arantza Gutierrezek, EH Bilduren izenean, transakzio-zuzenketa bat aurkeztu eta irakurri du:

"Udalak hiriko zuhaitzen ondarearen eboluzioa dignostikatzea eta hezkuntza elkarteekin nahiz elkarte **kontserbazionistekin eta adituekin interes berezia** edo/eta 30 urte baino gehiago dituzten espezieak katalogatzeko eta babesteko plan bat

Iñaki Amorrortu lee la siguiente moción:

Aún siendo Getxo un municipio privilegiado en especies arbóreas dentro de su trama urbana, tanto en ámbitos privados como en públicos, en los últimos tiempos han venido ocurriendo acontecimientos negativos en relación a la conservación y preservación de nuestro patrimonio arbóreo.

La reciente pérdida de cuatro ejemplares de gran porte en la orilla del río Gobela se une a otras muchas situaciones ya sufridas de claro perjuicio para la conservación de nuestro patrimonio.

Por todo ello, hoy hacemos llegar para su aprobación por el Pleno la adopción del siguiente ACUERDO:

Que en el Ayuntamiento se diagnostique la evolución del patrimonio arbóreo urbano y que se establezca, con las asociaciones conservacionistas y educativas, un plan que catalogue las especies superiores a los 30 años y las proteja. En la misma lInea, las unidades de ejecución pendientes o las aprobaciones parciales deberían respetar el catálogo arbóreo histórico o de interés.

Arantza Gutiérrez en nombre de EH Bildu presenta una enmienda transaccional a la que da lectura:

"Que en el Ayuntamiento se diagnostique la evolución del patrimonio arbóreo urbano y que se establezca, con las asociaciones conservacionistas, educativas **y personas expertas en la materia**, un plan que catalogue las especies de

ezartzea. Ildo beretik, egiteke dauden egikaritze-unitateek edo onartze partzialek kalatogoa errespetatu behar dute, historikoa edo interesekoa. **Era berean, bertako espezieak lehenetsiko dira landatu edo birlandatzeko orduan.**"

Paula Amievak, GUKen izenean, onartu egin du zuzenketa.

Susana de Cosek adierazi du, PPren izenean, mozioaren aldeko botoa emango dutela, ingurumena hobetzearen alde daudelako.

Joseba Arregik hartu du hitza eta esan du mozioaren arabera azkenaldian zuhaitzei kalte egin zaiela, eta ez dagoela adierazpen horiekin ados. Gogoratu du mozioan aipatu zuhaitzak kendu direla Gobela ibaiaren ibilgua hobetzeko obrak egin ahal izateko. Horrez gain, eskatu die mozioan obra horiek direla eta landatutako zuhaitzak ere aintzat hartzea, kendutakoak baino gehiago direlako. Jakinarazi du Udalak zuhaitzak kentzen dituela, soilik, segurtasuna dela eta edo azpiegiturak egitea eragozten dutenean. Azaldu du, baita ere, zuhaitzen erakusgai bat dagoela, 15.000 ale ingurukoa, eta aurten zuhaitz interesgarriak banan-banako fitxekin katalogatzeko asmoa dagoela. Adierazi du, halaber, HAPOn babestutako zuhaitzak daudela 2001. urtetik. Orobat, jakinarazi du Udalak zuhaitzen inguruko udal-jarduera guztien berri ematen diela herritarrei eta jarduera horiek web-orrian kontsultatu daitezkeela. Web-orrian ikusten da azkena 120 zuhaitz landatu zirela, eta non landatu ziren ere agertzen da, mantentze-lanetarako eta lorezaintzako aholku eta guzti. Gainera, dagokion arloak zuhaitzen inguruko

**especial interés** y/o superiores a los 30 años y las proteja. En la misma línea, las unidades de ejecución pendientes o las aprobaciones parciales deberían respetar el catálogo arbóreo histórico o de interés. **Asimismo, se dará prioridad a las especies autóctonas a la hora de plantar y reforestar**."

Paula Amieva, en nombre de GUK, acepta la enmienda.

Susana de Cos, en nombre del PP, manifiesta que van a apoyar la moción en coherencia con su postura de apoyo a la mejora del medio ambiente.

Joseba Arregi interviene para indicar que la moción manifiesta que en los últimos tiempos han venido ocurriendo acontecimientos negativos en relación al arbolado, manifestación de la que discrepa. Recuerda que los ejemplares de árboles a los que se refiere la moción se han retirado para posibilitar las obras que se están realizando para mejorar el cauce del río Gobela y les pide también que en la moción valoren los árboles que se han plantado con motivo de dichas obras, que son bastantes más que los que se han suprimido. Recuerda que el ayuntamiento sólo retira árboles por razones de seguridad y cuando se ven afectados por la realización de infraestructuras. Indica también que existe un muestrario arbóreo que abarca cerca de 15.000 ejemplares y que está previsto para este año la catalogación de los árboles de interés con fichas individualizadas. También recuerda que el PGOU tiene elementos singulares arbóreos protegidos desde el año 2001. Informa que el ayuntamiento tiene a disposición de todos los vecinos actuaciones municipales referentes a cuestiones arbóreas a las que se puede

gai guztien segimendua egiten du. Gauzak horrela, ez dute mozioaren alde egingo, baina abstenitu egingo dira; beraz, argazkia egin nahi bazuten, egingo dute.

acceder desde la página web, donde figura como última incorporación la plantación última de 120 ejemplares con su ubicación y también con consejos de mantenimiento, jardinería, etc., y que por parte de su área hay un seguimiento y atención de todo el tema arbóreo, por lo que si bien no van a apoyar la moción se van a abstener y si lo que buscaban es una foto la van a tener.

Enrique Pradak erantzun dio badakitela Gobela ibaiaren ibilguko obrak zuhaitzetan zer eragin izan duen, eta mozioa errudunik seinalatu gabe egin dutela. Gogoratu du bizilagun-talde batek eskari bat aurkeztu zuela eta, besteak beste, zuhaitzei buruzko galdera batzuk egin zituztela, baina Ingurumeneko arduradunek ez dietela erantzun. Esan du, baita ere, bizilagunak zuhaitzak kentzeko beste udal-jarduera batzuen kontra agertu direla. Horregatik guztiagatik iruditu zaie garrantzitsua mozioa aurkeztea eta gai horren gainean eztabaidatzea.

Enrique Prada replica que son conocedores de lo que ha supuesto la obra del río Gobela para las especies arbóreas y que la moción la han hecho sin manifestar ningún tipo de culpables. Recuerda que la solicitud que desde un colectivo vecinal se hizo con una batería de preguntas sobre temas, entre otros, de árboles a los responsables de Medio Ambiente aún no ha tenido respuesta. Indica también la existencia de otras actuaciones públicas de supresión de especies arbóreas criticadas por los vecinos y que por todo ello les ha parecido importante presentar la moción para debatir sobre esta cuestión.

Santiago Sainzek esan du GUKek aurkeztu duen mozioa etorkizunean zuzen jokatzeko konpromiso bat dela eta, beraz, mozioaren alde egingo dutela.

Santiago Sainz manifiesta que la moción que presenta GUK es un compromiso de futuro de una forma de actuar correcta, por lo que la apoyarán.

Enrique Pradak esan du GUKek ez dituela gaiak Udalbatzan aurkezten argazkiak ateratzeko, nahiz eta beste batzuk hori egiten duten.

Enrique Prada indica que GUK no lleva los cuestiones al Pleno para obtener fotos aunque reconoce que otros grupos si lo hacen.

Mozioa bozkatu dute eta hau izan da emaitza: aldeko 14 boto, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstentzio, EAJ, PSE-EE.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Beraz, mozio hau onartu egin da:

En consecuencia es aprobada la

siguiente moción:

"Udalak hiriko zuhaitzen ondarearen eboluzioa dignostikatzea eta hezkuntza elkarteekin nahiz elkarte kontserbazionistekin eta adituekin interes berezia edo/eta 30 urte baino gehiago dituzten espezieak katalogatzeko eta babesteko plan bat ezartzea. Ildo beretik, egiteke dauden egikaritze-unitateek edo onartze partzialek kalatogoa errespetatu behar dute, historikoa edo interesekoa. Era berean, bertako espezieak lehenetsiko dira landatu edo birlandatzeko orduan."

"Que en el Ayuntamiento se diagnostique la evolución del patrimonio arbóreo urbano y que se establezca, con las asociaciones conservacionistas, educativas y personas expertas en la materia, un plan que catalogue las especies de especial interés y/o superiores a los 30 años y las proteja. En la misma línea, las unidades de ejecución pendientes o las aprobaciones parciales deberían respetar el catálogo arbóreo histórico o de interés. Asimismo, se dará prioridad a las especies autóctonas a la hora de plantar y reforestar."

**111.- GUK GETXO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: TOKIKO ENPLEGU-MAHAIAREN SORRERA.**

**111.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK GETXO S/CREACIÓN DE MESA DE EMPLEO LOCAL.**

Iñaki Amorrortuk mozioa irakurri du. Ondoren, honako hau esan du: "Azpimarratu nahi dugu mozio honen asmoa ez dela Udalaren enplegu-erakundearen lana eta zereginak zalantzan jartzea; badakigu Udalbatzan gai hori lehenago eztabaidatu dela, baina ez dugu eztabaida horretan hasi nahi.

Gure helburua da alderdi guztien elkargune bat bilatzea, Getxon enplegu-programa orokor bat sustatzeko. Eta Udaleko gobernu-taldeari eta gainerako alderdiei eskatzen diegu jarrera aktiboa izatea, gai horretan, alegia enplegu-arloan, siglak eta koloreak alde batera utzi behar direlako.

Udalek enplegu-arloan dituzten eskumenak ez dira mugatuak. Egia da

Iñaki Amorrortu da lectura a la moción. A continuación manifiesta: "Con esta moción, y queremos remarcarlo, no pretendemos cuestionar la labor y cometidos abordados por el ente municipal de empleo, aunque sabemos que hace tiempo en el seno de la corporación tuvo lugar un incipiente debate en el que no pretendemos entrar.

El objetivo que exponemos es buscar un punto de encuentro común de todos los partidos para impulsar un programa global de empleo en Getxo. Y reclamamos del grupo en el gobierno municipal y del resto de partidos una postura proactiva en un tema que no debe tener siglas ni colores, como es el empleo.

El acotamiento de las competencias municipales en esta materia no es tal. Si

enpleguaren kudeaketa udalaz gaindiko erakundeek arautzen dutela, baina, hala ere, udalerriek aukera handiak dituzte gai horretan.

bien es cierto que la gestión de empleo está reglada y gestionada por instancias supramunicipales, los municipios tienen amplias posibilidades en esta materia.

Getxon enplegua elkar hartzeko kontua da. Uste dugu enpleguaren oinarriak ezarriz gero, mozio honek helburu duen moduan, Getxon enplegua finkatzeko xedea lortzeko bidea eta lana indar handiagoarekin sustatu daitezkeela, adostasuna eta partaidetza oinarri hartuta, herri gisa berezko ditugun irizpideekin.

El empleo en Getxo es una causa común. Creemos que poniendo sus bases, como pretende esta moción, se puede impulsar con más fuerza, a través del consenso y la participación, el camino y el trabajo necesarios para alcanzar el objetivo de afianzar, con los criterios que nos son propios como pueblo, el empleo en Getxo.

Horregatik proposatu dugu tokiko enpleguaren mahai horretan Udaleko alderdi politikoek ez ezik bizilagunek ere parte hartzea, bizilagun-elkarte, enpresa-elkarte, sindikatu eta abar gisa, eta batez ere lanik ez duten Getxoko bizilagunek, irizten diogulako mahaian ilusioa eta gogoa handituko dituztela".

Es por esto que proponemos que en esta mesa de empleo local no sólo formen parte los grupos políticos presentes en el ayuntamiento, sino que exista también una importante participación vecinal, en forma de asociaciones de vecinos, asociaciones empresariales, sindicatos, etc y especialmente vecinas y vecinos de Getxo en situación de desempleo ya que consideramos que serán capaces de añadir a esta mesa un plus de ilusión y ganas."

Ignacio Uriartek hartu du hitza, gobernu-taldearen izenean, eta adierazi du enplegua dela, zalantzarik gabe, Udalbatzako kide guztien kezka nagusia. Halaber, GUK taldekoei esan die arrazoizkoa dela, talde berria izanik, proposamen hori aurkeztea, eta txalotu egin du jarrera hori. Ondoren autonomia erkidegoak enpleguaren inguruan zer eskumen dituen azaldu du; Lanbideren eskumenak aipatu ditu eta azaldu du Udala elkarlanean aritzen dela, dagozkion eskumenen esparruan. Haren iritziz, GUKen proposamena dagoenari gehitzen zaio, eta espero du kezka hori proiektu eta neurri zehatzak aurkezten direnean jasotzea. Irizten dio

Ignacio Uriarte interviene, en nombre del equipo de gobierno, manifestando que no duda que el empleo es la mayor preocupación de todos los corporativos e indica a GUK que como nuevo grupo que es, ve lógico que haya presentado esta proposición y aplaude dicha actuación para a continuación pasar a explicar la situación competencial de la comunidad autónoma sobre el empleo, citando las competencias de Lanbide y cómo el ayuntamiento colabora en el ámbito de sus competnencias. Estima que la propuesta de GUK se suma a lo que ya existe y espera que esa preocupación se refleje cuando se presenten proyectos y medidas

proposamenak kontratazio publikoari eragiten diola. Alde horretatik, azaldu du Udalak 15 urte baino gehiago daramatzala gizarte-klausulak lantzen, getxotarrentzako enplegua lortzeko bide bat baitira. Berretsi du gobernu-taldea gai hori lantzeko foroan aitzindari izateko prest dagoela, eta udalkide guztiak irailaren 28an Areetako Elkartegian egingo den bilerara gonbidatu ditu. Bileraren helburua da Ekonomia Sustapeneko Sailaren jarduerak ezagutzera ematea eta jarduerak hobetzeko zer aukera dauden aztertzea, betiere muga legalak kontuan hartuta.

concretas. Opina que la propuesta afecta a la contratación pública en la cual desde hace más de 15 años el ayuntamiento lleva trabajando las cláusulas sociales que son una vía para conseguir empleo para los getxotarras. Se ratifica en que el equipo de gobierno está dispuesto a liderar un foro para tratar el tema e invita a todos los corporativos a una reunión a celebrarse el próximo día 28 de septiembre en el Elkartegi de Las Arenas para dar a conocer las actividades del departamento de Promoción Económica y ver las posibles mejoras en la actuación, teniendo en cuenta siempre los límites legales.

Miguel Ibabek jakinarazi du alderdi popularrak mozioaren alde egingo duela, langabeziak garrantzi handia duelako. Ondoren Getxoko langabeziari buruzko datuak eman ditu eta esan du datu horiek pertsonei eragiten diela. Adierazi du, baita ere, eskumenen gaur egungo araudia errespetatu beharra dagoelako eta enpleguarekin zerikusia duten udal-arloek zeharka lan egin behar dutela, problematika horri hobeto erantzuteko. Orobat, eskatu du Ekonomia Sustapeneko arloak enpresak eta enpresen premiak aztertzea, eta baita langabeen prestakuntza zein den jakitea eta prestakuntza egokia sustatzea ere. Azkenik, esan du dagoena optimizatzea garrantzitsua dela.

Miguel Ibabe manifiesta que el grupo popular va a apoyar la moción por la importancia que tiene el tema del desempleo. A continuación da datos del desempleo existente en Getxo y que todo ello afecta a personas e indica también que es necesario el respeto a la normativa competencial actual y cree que se debe trabajar transversalmente entre las diferentes áreas municipales afectadas para atender mejor esta problemática. Pide que el área de Promoción Económica realice una prospección de las empresas y sus necesidades a la vez que se conozca e incida en la formación adecuada de las personas desocupadas. Finaliza manifestando que es importante optimizar lo existente.

Santiago Sainzek esan du, Ciudadanos taldearen izenean, mozioa egokia iruditzen zaiola, nahiz eta ez den inoiz ahaztu behar zein den udalei dagokien lege-esparrua.

Santiago Sainz, en nombre de Ciudadanos, manifiesta que la moción le parece adecuada aunque no hay que olvidar nunca el marco legal que afecta a los ayuntamientos.

Ondoren Enrique Pradak hartu du hitza eta mozioa babestea eskertu du,

Enrique Prada interviene para mostrar el agradecimiento por el apoyo a la

asmoa delako gaian aurrera egitea, orain arte egindakoa zalantzan jarri gabe. Izan ere, hobetu daitekeela uste dute, betiere indarrean dauden legeen arabera.

moción que busca juntar voluntades para avanzar en el tema y que no cuestiona nada de lo que se ha hecho pero creen que es posible mejorar y, evidentemente, actuando dentro de la legalidad.

Gero, Ignacio Uriartek berretsi du udal-jarduera eta proposatzen diren helburuak zertan diren jakin ondoren proposamen zehatzak egin eta babestu behar direla.

Ignacio Uriarte interviene para reiterar que tras conocer la situación de la actuación municipal y de los objetivos que se propongan hay que plantear y respaldar propuestas concretas.

Mozioa bozkatu dute eta hau izan da emaitza: aldeko 13 boto, PP, GUK eta EH Bildu; eta 12 abstentzio, EAJ, PSE-EE eta Ciudadanos.

Sometida la moción a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu; 12 abstenciones, PNV, PSE-EE, Ciudadanos.

Beraz, mozio hau onartu egin da:

En consecuencia es aprobada la siguiente moción:

Azken urteetan, Getxoko hainbat obrak eta ohiko kontratu nahiz lanetan egindako inbertsioak zenbateko handikoak izan dira. Era berean, etorkizun hurbilean enplegua sortu ditzaketen beste esku-hartze eta inbertsio batzuk egitea espero da (Punta Begoña, Fadura, etab.).

En los últimos años las inversiones en Getxo en diferentes obras así como habituales contratas y trabajos se han elevado a importantes cantidades. Igualmente en el futuro cercano se prevén otra serie de intervenciones e inversiones (Punta Begoña, Fadura, etc) susceptibles de generar empleo.

Getxon, beste udalerri batzuetan bezala, jende askorentzat langabezia izan da krisiaren ondorioetako bat, eta GUK taldekook uste dugu lehenago egin izan diren inbertsio edo udal jarduketak ez direla egokiak izan tokiko enpleguaren onurarako.

En Getxo, al igual que en el resto de municipios, muchas personas sufren los efectos de la crisis también en forma de desempleo y desde GUK consideramos que anteriores inversiones, así como otro tipo de actuaciones municipales, no han tenido el adecuado reflejo en el beneficio del empleo local.

Inguruabar horiek ikusita, bene-benetan uste dugu gure udalak tokiko enpleguaren onuraren aldeko gauza asko egin ditzakeela, eta, bereziki, langabezia dela-eta egoera larrian dauden pertsonen alde.
Gure iritziz, Getxolan gisako udal erakundeek ez dute, gaur egun arte,

Con estas circunstancias estamos convencidos y convencidas de que desde nuestro Ayuntamiento se pueden hacer muchas cosas para que se repercuta en beneficio del empleo local y particularmente en las personas que sufren graves situaciones a consecuencia del desempleo.

guk proposatzen ditugun helburuak lortzeko funtzioak garatu.

Entendemos que organismos municipales como Getxolan no han desarrollado funciones, hasta la fecha, para alcanzar los objetivos que planteamos.

Mozio honen bitartez, GUKek borondate politikoa agerian uzten duen adostasunera iritsi nahi du, guzti-guztion artean getxotarrei mesede egiteko helburuarekin gai horien inguruko alderdiak landu eta garatzeko.

En el ánimo de GUK, por medio de esta moción, buscamos un consenso que se refleje en voluntad política para, entre todos y todas trabajar y desarrollar aspectos sobre estos temas en beneficio de los y las getxotarras.

Proposatu dugun Tokiko Enplegu Mahaia izena jartzea ez da garrantzitsuena, izena gutxienekoa baita. Benetan garrantzitsua dena da eskatzen ari garen borondate politikoa batzea, foro bat eratzeko eta, bertan, helburuak lantzeko; besteak beste, hauexek dira adibide batzuk:

La denominación de mesa de empleo local que proponemos no tiene importancia como tal; el nombre es lo de menos. Lo realmente importante es aunar esta voluntad política que pedimos para la conformación de un foro en el cual los objetivos, entre otros y por ejemplo, sean:

Helburu nagusi gisa lortu nahi da, ahal dela, Getxoko inbertsio gehienek tokiko enpleguan eragina izatea.

Conseguir como objetivo principal que la mayor parte posible de las inversiones en Getxo repercutan en empleo local.

Langabeziari begira, egoera larriak identifikatzeko lan egitea.

Trabajar para la identificación de situaciones de gravedad en relación al desempleo.

Tokiko lan-poltsa bat eratzea, Getxoko langabe guztiek curriculuma bertan sar dezaten.

Creación de una bolsa de empleo local en la cual todos/as los desempleados/as de Getxo puedan dejar su currrculum.

Getxoko langabeekin kontrol, aholkularitza eta jarraipen lanak egitea.

Labores de control, asesoramiento y seguimiento de los desempleados de Getxo.

Kontratu, adjudikazio eta bestelakoetan tokiko enplegua sustatzea.

Incentivar el empleo local en contratos, adjudicaciones, etc.

Getxon egiten diren lanetan, dagozkien hitzarmenetan ezarritako baldintzak betetzea lortzea.

Conseguir que en los trabajos realizados en Getxo se cumplan las condiciones establecidas en sus

correspondientes convenios.

Tokiko kontratazioa sustatzeko formulak eta lege-bideak identifikatzea.

Identificación de fórmulas y cauces legales para la incentivación de la contratación local.

Udaleko arloen arteko koordinazioa, premiak eta aukerak identifikatzeko.

Coordinación con las diferentes áreas municipales para la identificación de necesidades y oportunidades.

Azken finean, adostasuna eta borondate politikoa oinarri hartuta egitura sozioekonomiko bat eratu nahi da, eta guztion artean goian azaldutako kontuak aintzat hartzen dituen xedea ezartzea; izan ere, langabeei udalak induzitutako edo egindako lan-aukerak bilatzeko arreta pertsonalizatuagoa eskaintzea dute helburu.

En definitiva tejer, desde el consenso y la voluntad política, un entramado socio-económico en el cual entre todos y todas nos marquemos el objetivo al que apuntan las cuestiones arriba planteadas, que no son sino una atención más personalizada al desempleado y desempleada en búsqueda de posibilidades laborales inducidas o realizadas desde el propio ayuntamiento.

Hori dela eta, gaur, honako ERABAKI hau helarazi nahi dugu Udalbatzak onar dezan:

Por todo ello, hoy hacemos llegar para su aprobación por el Pleno la adopción del siguiente ACUERDO:

Udalak tokiko enplegu mahai hori eratzeko beharrezkoak diren urratsak ematen hastea, guzti-guztiok hori lortzeko eta aurretik adierazitako xedeen bila lan egin dezagun, baita legez bideragarriak diren xedeen bila ere. Gainera, Udalbatza osatzen dugun talde politikoek adostutako beste batzuk lortzearen alde egin ahal izango dugu.

Que en el Ayuntamiento se comience a dar los pasos necesarios para la creación de esta mesa de empleo local desde la que todos y todas trabajemos en pos de la consecución de la Ifnea y concepto de objetivos antes indicados, y que legalmente fueran viables, y otros que se pudieran acordar entre los grupos políticos que conformamos el Pleno Municipal.

## 112.- GUK GETXO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ROMO MULTZO ARKITEKTONIKOAREN BABESA.

## 112.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL GUK GETXO S/PROTECCIÓN DEL CONJUNTO ARQUITECTÓNICO ROMO.

Susana Andollok mozioa irakurri du. Ondoren, galdetu du Gobernu Batzordeak dokumentu horren gainean zer iritzi duen azaldu al duen eta

Susana Andollo da lectura a la moción. Pregunta también si la Junta de Gobierno se ha posicionado respecto a ese documento y si a la Junta de

Gobernu Batzordeari bizilagunen iritzia interesatzen al zaien eta guztiei kontsulta egingo al dieten.

Gobierno le interesa la opinión de los vecinos y van a ser éstos consultados.

Gero Iñaki Gamerok hartu du hitza eta adierazi du alderdi popularrak mozioaren alde egingo duela, Bizkaiko Arkitektoen Ondare Batzordearen txosteneko edukiarekin bat egiten duelako, Romoko eraikinei garrantzia ematen baitie. Irizten dio Romo duin bihurtu behar dela eta gai hauen inguruan dituzten arazoak konpondu behar direla: gizarte-ekipamenduak, aparkalekuak eta abar. Garrantzitsua iruditzen zaio Nagusien Etxearen eraikinari eustea, eta talde politikoei eta bizilagunei HAPOren aurrerapenaren kontrako alegazioak aurkeztea eskatu die, ondare hori defendatzeko.

Iñaki Gamero interviene manifestando que el grupo popular va a apoyar la moción ya que comparte el contenido del informe de la comisión de Patrimonio y Arquitectos de Bizkaia que pone en valor los edificios de Romo. Cree que hay que dignificar Romo y atender a sus diferentes problemas de equipamientos sociales, de aparcamientos, etc. Le parece importante que el edificio del Nagusien Etxea se mantenga y pide a los grupos políticos y a los vecinos que presenten alegaciones al avance del PGOU en el sentido de defender dicho patrimonio.

Oier Iturraldek esan du EH Bilduk mozioaren alde egingo duela. Nagusien Etxeari dagokionez, gaur egungo egoera kritikatu du eta uste du berritu egin behar dela, baina erabilera aldatu gabe; izan ere, ez du ulertzen Udalari zergatik interesatzen zaion Romoko Kultur Etxeko solairu batera eramatea.

Oier Iturralde indica que EH Bildu va a apoyar la moción y sobre la Nagusien Etxea manifiesta además su crítica a la situación actual en que se encuentra y cree que necesita una reforma pero manteniendo el espacio para ese uso y no entiende el interés del ayuntamiento en trasladarlo a una planta de la Romo Kultur Etxea.

Santiago Sainzek esan du hirien arkitektura historia eta etorkizunerako eskola dela eta, horregatik, mozioaren alde egingo duela.

Santiago Sainz indica que la arquitectura de una ciudad es historia y que también escuela para el futuro y que por ello va a apoyar la moción.

Ondoren Joseba Arregik hartu du hitza eta esan du eraikinen ondarearen arloa eta eraikinak babestea gai korapilatsuak direla. Mozioak aipatzen duen txostenari dagokionez, eskatu zuen eraikin zehatz batzuei oinarrizko babes-erregimena aplikatzea. Gai hori lan-taldean eztabaidatu dute eta aztertzen ari dira, eta irizten dio zentzuzkoena dela iritzi hori HAPO berrikusteko aurrerapen-dokumentuan zehaztu arte

Joseba Arregi interviene para manifestar que el tema del patrimonio edificado y su protección es muy complejo. Respecto al informe al que se refiere la moción lo que solicitó es que a determinados edificios se les aplique un régimen de protección básica y se está estudiando y se ha debatido en el Lantalde y cree lógico esperar a que se defina la opinión en el documento de avance de la revisión del PGOU. A

itxarotea. Izan ere, orduan Udalak eraikin horiek zer babes-maila izango duten erabaki beharko du, eta ordura arte itxarotea eskatu du. Esan du mozioak eskatzen duela txostena onartzea, eta ez zaio zentzuzkoa iruditzen Udalbatzak gai teknikoen gaineko erabakiak hartzea, udal-teknikarien txostenik gabe. Gogoratu du eraikinak babesteak jabeen eskubideak mugatzen dituela eta kasu honetan Udalari eragiten diola. Azkenik, esan du mozioak proposatzen duenaren ondorioz Getxon ezingo litzatekeela etxebizitza babestu eta babespeko apartamentu modernorik jarri. Horregatik, transakzio-zuzenketa bat aurkeztu eta irakurri du:

partir de ahí el ayuntamiento tendrá que decidir sobre estos edificios y los niveles de protección, por lo que pide que se espere a ese momento. Manifiesta que la moción pide que se asuma el informe, y no le parece razonable que el Pleno se pronuncie sobre cuestiones fundamentalmente técnicas sin conocer ningún tipo de informe de los técnicos municipales. Recuerda también que la protección limita los derechos de los propietarios y que en este caso afecta al ayuntamiento. Finalmente indica que lo que se propone en la moción supondría imposibilitar en Getxo la existencia de viviendas protegidas y de unos apartamentos tutelados modernos por lo que plantea una transaccional a la que da lectura:

“Getxoko Udala, HAPOren beraztertze prozezuaren barruan, baloratu dezan antzinako eskolen eta kaperaren eraikuntzaren (oraingo Nagusien Etxea eta Euskaltegia) eta San Jose Parrokiaren babestearen egokitasuna.”

“Que el Ayuntamiento de Getxo, dentro del proceso de revisión del PGOU valore la conveniencia de proteger los edificos antiguas Escuelas y Capilla (actualmente Nagusien Etxea y Euskaltegi) y Parroquia de San José.”

Enrique Pradak esan du lantaldeko kideen %80 mozioan eskatzen denaren alde agertu dela eta, beraz, baloratu egingo dutela; horregatik, transakzio-zuzenketa ez da onartu, irizten diolako ez duela ekarpenik egiten. Adierazi du Punta Begoñan memoriari merezi duen garrantzia eman diotela duela gutxi eta Romon gauza bera egin daitekeela. Amaitzeko esan du mozioan akordio politiko bat planteatu dutela, gai teknikoetan sartu gabe.

Enrique Prada manifiesta que en el lantalde se ha valorado con un consenso superior al 80% lo que se pide en la moción, por lo que supone que se valorará y estima que lo que plantea la enmienda transaccional no aporta nada, por lo que no la admiten. Manifiesta que recientemente en Punta Begoña se ha puesto en valor la memoria a través de la edificación y que eso mismo se puede realizar en Romo. Finaliza indicando que lo que la moción plantea es un acuerdo político y no entra en cuestiones técnicas.

Susana Andollok galdetu du bulego teknikoak baloratu al duen Ondare Batzordearen txostena.

Susana Andollo interviene para preguntar si la oficina técnica ha valorado el informe de la comisión del Patrimonio.

Alkateak erantzun dio galderak egiteko txandak daudela osoko bilkuretan eta informazio-batzordeetan, eta eskariak ere egin daitezkeela.

El Alcalde responde que para la realización de preguntas existe un turno en los plenos y también en las comisiones informativas y las solicitudes concretas.

Joseba Arregik jakinarazi du txosten honetan aurkezten ari diren iradokizunekin batera aztertzen ari direla. Mozioak planteatzen du Udalak ez dagozkion eskumenen inguruko gaiei buruzko eskari bat onartzea, besteak beste oinarrizko babes-erregimena zehaztea, eta hori Eusko Jaurlaritzari dagokio. Gogoratu du Udalak Romoko etxe merkeak babestu dituela, bere mailan, eta gauza bera gertatzen dela txostenean planteatzen diren eta aurkeztutako zaintzarekin bat ez datozen erabilerekin, eta gauza bera egikaritze-unitatea batean sartzea aipatzen duenean. Txostenak dio Nagusien Etxearen kontserbazio-kondizioak bikainak direla, eta adierazpen hori ez dator bat udal-teknikarien txostenekin. Azkenik, esan du txostenean ez dela ageri babesa justifikatzen duen agurdio arkitektonikorik.

Joseba Arregi manifiesta que están analizando con el conjunto de sugerencias que se están presentando también en este informe. La moción plantea que el ayuntamiento asuma una solicitud concreta que pide cuestiones que no son de competencia municpal como es determinar el régimen de protección básica, determinación que corresponde al Gobierno Vasco. Recuerda que el ayuntamiento a su nivel tiene protegidas las casas baratas de Romo, lo mismo sucede respecto a usos que están planteando en el informe que son contradictorios con el mantenimiento que se presenta y lo mismo cuando hace referencia a la incorporación a una unidad de ejecución. El informe también indica que las condiciones de conservación del Nagusien Etxea son excelentes, manifestación que no coincide con los informes técnicos municipales. Finaliza indicando que en ese informe tampoco se aportan argumentos arquitectónicos que justifiquen la protección.

Gero Iñaki Gamerok hartu du hitza eta azaldu du mozioak planteatzen duela, alderdi popularrak ulertu duenaren arabera, Romoko hirigintza-multzoa duin bihurtzea, eremu hori duintze aldera. Irizten dio Udalak eraikinak babestea ez dela nahikoa, eta gogoratu du Harino Panadera eraikina galdu egin dela, babestu zuten arren. Azkenik, adierazi du Nagusien Etxearen eraikinari eustea funtsezkoa iruditzen zaiola, alegia behar diren berrikuntzak egitea eta erabilerari

Iñaki Gamero interviene para indicar que la moción lo que plantea, y así lo ha entendido el grupo popular, es dignificar el conjunto urbanístico de Romo para dignificar la zona. Opina que incluir en la protección municpal no es suficiente y recuerda el caso del edificio de Harino Panadera que pese a estar incluido se ha perdido. Finaliza indicando que le parece vital el mentenimiento del edificio del Nagusien Etxea con las reformas necesarias manteniendo su uso actual.

eustea.

Mozioa bozkatu dute eta hau izan da emaitza: aldeko 14 boto, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstentzio, EAJ, PSE-EE.

Beraz, mozio hau onartu egin da:

GUK taldeak egindako mozioa, Getxoko Udaleko Udalbatzak Bizkaiko Arkitektoen Ondare Batzordeak Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko bulego teknikoan egindako adierazpenak onar ditzan. Hori guztia bertako Omar Benitez Rodriguez presidenteak egin du “Nagusien Etxea – Romo” izenburua duen 2015eko otsaileko txostenaren bidez (18 orriko kopia erantsi da).

Laburbilduz, hauexek dira adierazpenak:

1- Romo auzoko eraikin hauek osatzen duten multzo arkitektonikoari garrantzia emateko txostena.
Etxe Merkeen Kooperatiba.
Eskola zaharra eta kapera (gaur egungo Nagusien Etxea eta Euskaltegia).
San Jose parrokia.

2- Multzo arkitektoniko horren babes-maila aldatzeko eskaera, eraikin horiei oinarrizko babesa maila emateko. Nagusien-etxeko eguneko zentroaren zerbitzuen hirigintza-egoera berrikustea eta kanpoko lorategia kalifikatzea.
Hori guztia, aipatutako txostenean jasotakoaren arabera.

3- Proposatutako eraikinak hartzen

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PP, GUK, EH Bildu, Ciudadanos; 11 abstenciones, PNV, PSE-EE.

En consecuencia es aprobada la siguiente moción:

Moción de GUK para que este pleno del Ayuntamiento de Getxo asuma y apruebe el conjunto de formulaciones realizadas por la Comisión de Patrimonio de Arquitectos de Bizkaia ante la Oficina Técnica de Revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo, de mano de su Presidente Omar Benitez Rodriguez, vía informe con fecha Febrero 2015 de titulo "Nagusien Etxea - Romo", del cual se adjunta copia de 18 hojas.

Dichas formulaciones constan, en resumen, de:

1- Informe de puesta en valor arquitectónico del conjunto formado por los siguientes edificios del barrio de Romo:
Cooperativa de Casas Baratas.
Antiguas Escuelas y Capilla (actual Nagusien Etxea y Euskaltegi).
Parroquia de San José.

2- Solicitud de modificación del nivel de protección de este conjunto arquitectónico para que se otorgue a estos edificios el grado de Protección Básica. Solicitud de revisión de situación urbanística de los servicios del hogar de dia Nagusien-etxea y calificación del jardín exterior.
Todo según los términos incluidos en dicho informe.

3- Proceder a la delimitación de una

dituen Egikaritze Unitate bat zedarritzea, beharrezkoak diren babeserako eta lehengoratzeko ekintzak definitzeko.

4- Eusko Jaurlaritzaren 41/1998 eta bigarren aldaketako 195/2006 dekretuetan ezarritakoa betetzen dela berrikustea.

5- Langileen etxebizitzak dituzten eraikinen garrantzia nabarmentzeko txosten horren oinarriak, Romo auzoko identitateari lotutako berezitasuna baitute, baita kolektibo-izaera duten aipatutako eraikinena ere; izan ere, azken finean, hiriko egituraren auzoa identifikatzen dutenak dira.

Hori dela eta, gaur, honako ERABAKI hau helarazi nahi dugu Udalbatzak onar dezan:

ERABAKIA:

Getxoko Udalak Bizkaiko Arkitektoen Ondare Batzordeak erantsitako txostenean egindako eskaera guztiak abian jartzea onartzea, eta horiek abian jartzea.

Unidad de Ejecución que englobe al conjunto de dichos edificios propuestos con el objeto de definir las acciones de protección y rehabilitación necesarias.

4- Revisar el cumplimiento de lo establecido en los Decretos de Gobierno Vasco 41/1998 y 195/2006 de segunda modificación.

5- Fundamentos de dicho informe de puesta en valor que desea resaltar la importancia de los edificios de viviendas obreras, cuya singularidad está unida a la identidad del barrio de Romo y de los edificios señalados de carácter colectivo, que son al fin y al cabo los que aglutinan la identificación como barrio de la trama urbana.

Por todo ello, hoy hacemos llegar para su aprobación por el Pleno la adopción del siguiente

ACUERDO:

Que el Ayuntamiento de Getxo apruebe y comience los trámites para poner en marcha el conjunto de solicitudes realizadas en el informe adjunto de la Comisión de Patrimonio de Arquitectos de Bizkaia.

**113.- GUK GETXO ETA EH-BILDU UDAL TALDEEK BATERA AURKEZTUTAKO MOZIOA: C HEPATITISAK JOTAKO GAIXOENGANAKO KONPROMISOA HARTZEA.**

Mozioa gai zerrendatik kentzen da.

**113.- MOCIÓN CONJUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL GUK GETXO Y EH-BILDU S/COMPROMISO CON LOS AFECTADOS DE LA HEPATITIS C.**

Se retira la presente moción del orden del día.

**114.- EH-BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: 35/02**

**114.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/LA**

**EPAIA.**

Maite Arraizak mozioa irakurri du.

Gero Koldo Iturbek hartu du hitza eta esan du EAJk 2013an argi utzi zuela zer jarrera duen, epai horien kontrako mozioak babestu baitzituzten. Gainera, epaia eman zutenean, EAJko bozeramaileak adierazi zuen beste garai batzuetakoa dela eta dena ETA denaren baieztapenean oinarrituta dagoela. Horren harira, esan du prozesua 12 urteren buruan izapidetu dutela eta era horretako adierazpenekin ezin dela bakearen eta bizikidetzaren bidean aurrera egin.

Jose Luis Landak esan du mozioaren edukiarekin eta EAJko bozeramaileak egindako adierazpenekin bat egiten duela, epaia emateko 13 urte behar dituen justizia ez baita justizia. Gainera, epaia ez du auzitegi arruntak eman, eta auzitegi horrek berak, duela gutxi, GALek eraildakoei biktimen eskubideak aintzatestea ukatzen zuen epai bat eman zuen. Pertsona guztiek eskubide berberak dituztenaren printzipioarekin ados dago; arau horrek zuzendu du alderdi sozialistaren, alegia Euskadiko alderdi zaharrenaren politika. Amaitzeko esan du alderdiak beti errespetatu dituela ebazpen judizialak, egoki iruditu zaizkionak zein kritikatu dituenak, eta, beraz, mozioaren kontrako botoa emango dutela.

Mozioa bozkatu dute eta hau izan da emaitza: aldeko 17 boto, EAJ, GUK eta EH Bildu; eta kontrako 8 boto, PP, PSE-EE eta Ciudadanos.

**SENTENCIA 35/02.**

Maite Arraiza da lectura a la moción.

Koldo Iturbe interviene para indicar que la postura del PNV ya se manifestó en el año 2013, cuando apoyaron mociones en contra de estos juicios y que cuando se ha producido la sentencia el portavoz del PNV ha valorado la misma manifestando que corresponde a épocas pasadas y que está basada en la afirmación de que todo es ETA, recordando también que ha tardado 12 años en tramitarse el proceso y que con pronunciamientos de este tipo no se puede avanzar en la paz y convivencia.

Jose Luis Landa manifiesta que inicialmente comparte el contenido de la moción y también las manifestaciones realizadas por el portavoz del PNV, ya que una justicia que tarda 13 años no es justicia y que además, la sentencia está dictada por un tribunal que no es el ordinario y que hace poco también ha llegado a dictar una sentencia en la que niega el reconomiento de los beneficios de las victimas a los asesinados por el GAL. Comparte el principio de todos los derechos para todas las personas que es una máxima que ha orientado la política del Partido Socialista, que es el más antiguo de Euskadi. Finaliza indicando que su grupo siempre ha respetado las resoluciones judiciales tanto las que les parecen oportunas como aquellas que critican, por lo que votarán en contra de la moción.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, GUK, EH Bildu; 8 votos en contra, PP, PSE-EE, Ciudadanos.

Miguel Ibabek hitza hartu du, botoa justifikatzeko, eta esan du PPk kontrako botoa eman duela ebazpen judizialei men egiten dielako beti.

Miguel Ibabe interviene en justificación de voto para indicar que el PP ha votado en contra porque acata siempre las resoluciones judiciales.

Beraz, mozio hau onartu egin da:

En consecuencia es aprobada la siguiente moción:

Garai politiko berri eta itxaropentsuak irekiak diren uneotan, instituzio, erakunde, talde eta norbanako andanak aldarrikatu du egungo testuinguru politikoan horrelako, eta ondotik datozen, makroepaiketa politikoek lekurik ez dutela. Iraganeko argazkiak direla horiek.

En el actual tiempo político abierto, nuevo y esperanzador, un gran número de instituciones, entidades, grupos y personas han revindicado que en el contexto político actual que este y los siguientes macrojuicios políticos no tienen lugar. Esas son fotografías del pasado

"Dena ETA da" teoriaren aitzakipean ireki zen 35/02 epaia orain dela hamabi urte baino gehiago. Oinarri beretik etorri ziren orduan hainbat egunkariren itxiera, indar politikoen ilegalizazioak eta ehunka pertsonen atxilotze eta espetxeratzea. Eskubide zibil eta politikoen urraketa ageriko honek orotariko erakunde, norbanako eta instituzioen arbuiatze argia ekarri du urteotan. Baita nazioarteko erakunde eta instantzia juridikoena ere.

El sumario 35/02 se inició bajo la excusa de la teoria de que "todo es ETA", hace más de doce años. Sustentado en ese argumentario vinieron luego el cierre de periódicos, las ilegalizaciones de fuerzas políticas y la detención y encarcelamiento de cientos de personas. Esta manifiesta violación de derechos civiles y políticos ha traído un claro rechazo de instituciones, personas e instituciones en estos años, así como de instituciones e instancias jurídicas internacionales.

Orain, epai honen azken sententzia jakinarazi berri den honetan, 104 herriko taberna, haien artean Getxoko Gorrondatxe eta Branka, konfiskatu eta hainbat laguni espetxe zigorra ezarria izan zaie Madrildik politika egiteagatik; honek guztiak oinarri oso ezkorra ezarriz ondoren datozen epaiketei begira eta egun bizi dugun egoera politikoari begira ere.

Ahora, en el momento en que se ha dado a conocer la última sentencia de este sumario, desde Madrid, se confiscan 104 "herriko tabernas" y se les impone encarcelación a un grupo de personas por realizar actividad política; todo lo cual cimenta una base muy negativa tanto de cara a los juicios siguientes como de cara a la situación política que vivimos hoy en día.

Hau dela-eta, Getxoko Udalak ondoko adierazpenarekin bat egitea eskatzen dugu:

Por ello, solicitamos al Ayuntamiento en Pleno que se adhiera a la siguiente declaración:

- Eskubide zibil eta politikoen

- Estas situaciones con un claro

defentsan, horrelako egoerak atzerapausu nabarmenak dira gure herrian. Are gehiago egungo testuinguru politikoan. Eskubide guztiak pertsona guztientzat. Makroepaiketa politikoekin amaitzeko eskatzen dugu.

retroceso en la defensa de los derechos civiles y políticos en nuestro pais. Más aún en el contexto político actual. Todos los derechos para todas las personas. Demandamos la finalización de los macrojuicios políticos.

- Epai honen aurka gauden heinean, gure elkartasuna adierazten diegu, kaltetuak suertatu diren elkarte eta tabernetako langileei eta bazkideei ere.

- Queremos expresar nuestra solidaridad con todas las personas trabajadoras o socias de las sociedades y tabernas, que han resultado damnificadas.

- Egun bizi dugun egoera politiko berrian horrelako gertaerek lekurik ez dutela adierazi nahi dugu, eta gure salaketa irmoa mahaigaineratu. Hala nola, bake iraunkor eta justu bat eraikitzeko uneotan, horrelako egoerak eman ez daitezen lan egingo dugula nabarmentzen dugu Getxoko Udaletik.

- Queremos expresar que, en la nueva situación política que vivimos actualmente, este tipo de hechos no tienen cabida y planteamos nuestro firme rechazo. Asimismo, subrayamos que, desde el Ayuntamiento de Getxo, en estos momentos de construcción de una paz justa y duradera, trabajaremos, para que no sucedan hechos de este tipo.

**115.- CIUDADANOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HUTSIK DAUDEN TOKIEN ERROLDA.**

**115.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/CENSO DE LOCALES VACIOS.**

Santiago Sainzek mozioa irakurri du.

Santiago Sainz da lectura a la moción.

Gero Eduardo Andradek hartu du hitza eta esan du mozioaren alde egingo dutela; halaber, hurrengo mozioetan xedapenak hobeto zehazteko eskatu du. Beharrezkoa iruditzen zaio hutsik dauden lokalen errolda egitea eta lokalen inguruko informazioa sortzea, jarduera ekonomikoa dinamizatzen saiatzeko, eta haren taldea gaia lantzeko prest dagoela azaldu du.

Eduardo Andrade interviene para manifestar que van a apoyar la moción y pide que en las próximas mociones se especifique mejor la parte dispositiva. Estima necesario el censo de lonjas vacías y que se genere información sobre las mismas para intentar dinamizar la actividad económica y pone a disposición su grupo para trabajar en el tema.

Ibon Rodriguezek esan du EH Bildu abstenitu egingo dela, asmoarekin bat datorren arren ez delako zehaztu asmo

Ibon Rodríguez manifiesta que EH Bildu se va a abstener ya que ve bien la intención pero no se concreta cómo se

hori nola gauzatuko den eta egikaritzeko hainbat gai garrantzitsu landu behar direlako. Irizten dio Udalak ez duela higiezinen merkatu normalean esku hartu behar, baizik eta merkatu arautu eta iraunkorra sustatu behar duela. Hori dela eta, programan era horretako jardueretarako bitartekaritza-zerbitzua planteatu zuten. Errolda sortzea eta sarean argitaratzea positiboa dela iruditzen zaio, baldin eta higiezinen espekulazioa sustatzeko ez bada.

va a realizar y en la ejecución hay que abordar cuestiones importantes. Cree que el ayuntamiento no debe de intervenir en el mercado inmobiliario normal sino que debe de promover un mercado regulado y sostenible, por ello en su programa planteaban un servicio de intermediación para este tipo de actuaciones. Cree que es positivo que se genere el censo y se publique en la red pero siempre que no sirva para potenciar la especulación inmobiliaria.

Ignacio Uriartek mozioaren asmo onak balioetsi ditu, baina esan du abstenitu egingo direla, irizten diotelako funtsezko arazoa ez dela publizitaterik eza, eta arlo horretan lehentasun gehiago duten gaiak azpimarratu ditu. Azaldu du, baita ere, datuak babesteko araudia errespetatu beharra dagoela, eta jakinarazi du Eusko Jaurlaritzak, sinatu duten hitzarmenaren arabera, informazio hori emango diela; hori, betiere, datuak babesteko araudiaren mugak aintzat hartuta.

Ignacio Uriarte manifiesta que aprecia la buena intención de la moción pero que se van a abstener ya que no creen que sea el problema fundamental la falta de publicidad de la oferta e insiste en cuestiones más prioritarias en este ámbito. Indica también que hay que respetar la normativa de protección de datos e informa que desde el Gobierno Vasco, en función de un convenio que han suscrito, les van a facilitar, con las restricciones derivadas de la normativa de protección de datos, este tipo de información.

Santiago Sainz ados dago orain arteko udal-jarduerekin, baina esan du mozioaren asmoa dela jarduera horietan sakontzea.

Santiago Sainz manifiesta su conformidad con las actuaciones municipales que se vienen realizando pero indica que lo que la moción pretende es profundizar en las mismas.

Mozioa bozkatu dute eta hau izan da emaitza: aldeko 10 boto, PP, GUK eta Ciudadanos; 15 abstentzio, EAJ, EH Bildu eta PSE-EE.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 10 votos a favor, PP, GUK, Ciudadanos; 15 abstenciones, PNV, EH Bildu, PSE-EE.

Beraz, mozio hau onartu egin da:

En consecuencia se aprueba la siguiente moción:

Udalerrian HUTSIK DAUDEN LONJEN lehenbiziko ONLINE ZENTSUA SORTZEA, auzoz auzo banatuta. Zentsu horren bidez, nahi

La CREACION en el municipio del primer CENSO ONlINE de LONJAS VACIAS, dividido por barrios en el cual los propietarios si lo desean

duten jabeek PUBLIZITATEA eman ahalko diete beren LONJEI. Txantiloi baten gainean lonjaren oinarrizko deskribapena egin ahalko dute, beraren datuekin, eta jabearen deskribapen txiki bat, NAHI IZANEZ GERO.

puedan dar PUBLICIDAD a sus LONJAS añadiendo una descripción básica sobre una plantilla predeterminada con todos los datos sobre la misma y una pequeña descripción OPCIONAL del propietario.

JUSTIFIKAZIOA:

JUSTIFICAClON:

Helburua mapa bat egitea da, auzoz auzo, eta Getxon negozio berriak sortu nahi dituzten sustatzaileei ezagutzera ematea, lokaletako batzuei jarduera itzuli ahal izateko, erostea edo alokatzea erabakitzen badute. Horrela, gure kaleetan enplegua eta bizia bultzatuko ditugu.

El objetivo no es otro que elaborar un mapa por barrios y dárselo a conocer después a promotores interesados en montar su nuevo negocio en Getxo, con el fin de que puedan devolver la actividad a algunos de los locales si optan por comprarlos o alquilarlos. Así fomentaremos el empleo y la vida en nuestras calles.

Proposamen hau Getxon erabili gabe dagoen HIGIEZIN-KAPITALARI buruzko informazio-fluxua mesedetu beharretik sortu dugu. Hori guztia lonjei aterabide bat emateko eta ENPRESABURUEK MERKATU-AZTERKETA objektiboagoak egin ahal izateko, informazio gehiagorekin, negozio bat zona batean edo bestean IREKITZEKO orduan. Horregatik, ekimen hau udalaren webgunean dagoen "ESTABLEZIMENDUEN GIDALIBURUAREKIN" OSATUKO LITZATEKE.

La propuesta viene en la línea de favorecer el flujo de información sobre el CAPITAL INMOBILIARIO en desuso de Getxo. Todo ello, para poderle dar una salida y los EMPRESARIOS puedan llevar a cabo unos ESTUDIOS DE MERCADO más objetivos y con más información sobre la mesa a la hora de ABRI R un negocio en una zona u otra. Por ello esta iniciativa, iría COMPLEMENTADA con la "GUlA DE ESTABLECIMIENTOS" de la que dispone la WEB del consistorio.

Gainera, Getxoko auzo bakoitzean hutsik dauden lonjen kopurua ZEHARKA jakiteko modu bat da, horrela lonjak birgaitu ahal izateko.

Además es una forma de tener conocimiento de forma INDIRECTA, del numero de lonjas vacías de las que disponen los diferentes barrios getxotarras y así poder llevar a cabo medidas de rehabilitación de los mismos.

Azkenik, gogora ekarri behar dugu Tokiko Araubideen Oinarrien Legearen 70 bis 1 artikulua. Horren arabera, toki erakundeek eta, bereziki, udalek

Finalmente, es necesario recordar el artículo 70bis.l LBR Ley de Bases de Régimen Local, que las entidades locales y, especialmente, los

informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu interaktiboan erabiltzea bultzatu behar dute, bizilagunekiko parte hartzea eta komunikazioa mesedetzeko.

municipios, deberán impulsar la utilización interactiva de las tecnologías de la información y la comunicación para facilitar la participación y la comunicación con los vecinos.

**116.- CIUDADANOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HERRITARREN PARTAIDETZA.**

**116.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/PARTICIPACIÓN CIUDADANA.**

Santiago Sainzek mozioa irakurri du.

Santiago Sainz da lectura a la moción.

Koldo Iturbek esan du Eledunen Batzordeak, joan den asteazkenean egindako bileran, Udal Arautegi Organikoaren (UAO) aldaketa eta herritarren partaidetza jorratzeko lan-talde bat sortzea adostu zuela. Hori dela eta, irizten dio proposamena lan-taldeari aurkeztu behar zaiola, eta eskatu du mozioa atzera botatzea, bestela abstenitu egingo direlako.

Koldo Iturbe indica que en la Junta de Portavoces del pasado miércoles por unanimidad se acordó crear un grupo de trabajo para abordar la modificación del ROM y la participación ciudadana y cree que esta propuesta debe presentarse en ese grupo de trabajo y pide que se retire la moción ya que de no hacerlo se abstendrán.

Maite Arraizak jakinarazi du EH Bildu, herritarren partaidetzaren aldekoa den arren, mozioaren kontra dagoela, hirigintzaren kudeaketari lotutako gaiak bakarrik hartzen dituelako aintzat, eta proiektuen zenbatekoaren araberako mugak jartzen dituelako, gainera. Horrez gain, kritikatu du mozioan hauteskunde-erroldan daudenei bakarrik aintzatesten zaiela bozkatzeko eskubidea, eta esan du EH Bilduren iritziz egokiena izango litzatekeela Getxoko 16 urtetik gorako biztanle guztiek bozkatu ahal izatea. Taldearen iritziz, mozioak ez du herritarren partaidetzan aurrerapausorik ematen, badirudi asmoa dela irudi bat zabaltzea.

Maite Arraiza manifiesta que EH Bildu está de acuerdo de la participación ciudadana pero que están en contra de la moción porque ésta se limita a temas de gestión urbanística y con limitaciones en función del importe de los proyectos. Critica además que en la moción sólo se reconoce el derecho a voto a los que figuran en el censo electoral mientras que para EH Bildu lo correcto sería que puedan votar todas las personas residentes en Getxo mayores de 16 años. Estiman que la moción no supone un avance importante en la participación ciudadana y creen que es más transmitir una imagen.

Santiagok adierazi du bozkatzeko eskubidea adin nagusikoek izaten dutela normalean, eta hizkera kontuan

Santiago manifiesta que el derecho al sufragio normalmente se adquiere con la mayoría de edad y cree que necesario

hartzea ezinbestekoa iruditzen zaio, ez dutelako kontsulta egitea eskatu, horretarako estatuko gobernuaren baimena behar delako. Ondoren, berretsi du proposamena garrantzitsua dela eta, beraz, ez duela atzera botako.

tener en cuenta el lenguaje ya que lo que ellos solictan no es una consulta, para lo cual hace falta autorización del gobierno de la nación, y se ratifica en que la propuesta es de calado, por lo que no va a retirarla.

Paula Amievak esan du, GUKen izenean, proposamena hobetu daitekeela, baina, positiboa iruditzen zaienez, babestu egingo dutela.

Paula Amieva, en nombre de GUK, cree que la propuesta es mejorable pero les parece una propuesta positiva y que la apoyarán.

Iñaki Gamerok jakinarazi du alderdi popularrak mozioaren muina balioesten duela, baina herritarren partaidetza gai oso garrantzitsua dela eta lan-taldean jorratu beharko litzatekeela, herritarren partaidetzaren inguruko kontzeptuak bezalaxe, eta, beraz, ez dutela proposamenaren alde egingo.

Iñaki Gamero indica que el grupo popular valora positivamente el espiritu de la moción pero que la participación ciudadana es una materia importante que requiere tratarla dentro del grupo de trabajo y trabajar también los conceptos de participación ciudadana, por lo que no van a apoyar la propuesta.

Mozioa bozkatu dute eta hau izan da emaitza: aldeko 5 boto, GUK eta Ciudadanos; kontrako 4 boto, EH Bildu; eta 16 abstentzio, EAJ eta PSE-EE.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 5 votos a favor, GUK, Ciudadanos; 4 votos en contra, EH Bildu; 16 abstenciones, PNV, PP, PSE-EE.

Beraz, mozio hau onartu egin da:

En consecuencia se aprueba la siguiente moción:

HIRIGINTZAKO KUDEAKETAKO ESKU HARTZE HANDIAK BERRESTEKO jarduketa PROTOKOLO bat ezartzea.

Establecimiento de un PROTOCOLO de actuación para la RATIFICACION DE GRANDES INTERVENCIONES en la GESTION URBANISTICA.

Herritarrei aurkeztu behar zaie, BERRETS DEZATEN, udal aurrekontua % 10ean GAINDITZEN DUEN aurrekontua daukan edozein esku hartze. Hori guztia udalaren webguneko INKESTA TELEMATIKOKO PROTOKOLO baten bidez, PRESENTZIALA udaletxean gaitutako zonetan, eta POSTA ARRUNTEZ ERROLDATUTA dauden eta UDAL HAUTESKUNDEETAN

Deberá someterse a RATIFICACION de la ciudadanía cualquier intervención cuyo presupuesto SUPERE en un 10% el presupuesto municipal. Todo ello a través de un PROTOCOLO de ENCUESTA TELEMATICA en la web del ayuntamiento, PRESENCIAL en zonas habilitadas en el mismo ayuntamiento y por CORREO ORDINARIO para todos aquellos vecinos EMPADRONADOS que gocen

BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA daukaten bizilagunentzat.

Gero, herritarren borondatea errespetatu beharko da, baldin eta BOTO-EMAILEEK azken UDAL HAUTESKUNDE ERROLDAREN % 20a gainditzen badute.

JUSTIFIKAZIOA:
Herritarren parte hartzea lehentasuna izan behar da udalaren lan-eremuetan, batez ere Getxoren etorkizuna taxutzen duten proiektuetan.

Ezin dugu ahaztu botere publikoek herritar guztiek bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko baldintzak bultzatu behar dituztela. 1978ko Espainiar Konstituzioaren 9. artikulua.

Konstituzioak adierazitakoa dela-eta, bizilagunek udalerriko bizitza publikoko gaietan oro har parte hartzeko prozedura eta organo egokiak sortu behar dituzte udalek, eta horiek izaera organikoko arauen bidez arautu. TAOLaren 70 bis 1 artikulua.

Era berean, toki erakundeek eta, bereziki, udalek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu interaktiboan erabiltzea bultzatu behar dute, bizilagunekiko parte hartzea eta komunikazioa mesedetzeko, dokumentuak aurkezteko eta administrazio-izapideak, INKESTAK eta, egokia bada, HERRITARREN KONTSULTAK egiteko. Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 70 bis.3 artikulua.

Horrenbestez, uste dugu

de sufragio ACTIVO en las ELECCIONES MUNICIPALES.

Posteriormente se habrá de respetar la voluntad popular siempre y cuando los VOTANTES superen el 20% del último CENSO ELECTORAL MUNICIPAL.

JUSTIFICACIÓN:
La participación ciudadana en los ámbitos municipales debe ser una prioridad; sobre todo en aquellos proyectos que configuran el futuro de Getxo.

No podemos olvidar que los poderes públicos deberán promover las condiciones para la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social. Artículo 9 CE (Constitución Española de 1978).

En relación con lo señalado de la Constitución, Los ayuntamientos deberán establecer y regular en normas de carácter orgánico procedimientos y órganos adecuados para la efectiva participación de los vecinos en los asuntos de la vida pública local del municipio en su conjunto. Artículo 70 bis. 1 LBRL.

Asimismo, las entidades locales y, especialmente, los municipios, deberán impulsar la utilización interactiva de las tecnologías de la información y la comunicación para facilitar la participación y la comunicación con los vecinos, para la presentación de documentos y para la realización de trámites administrativos, de ENCUESTAS y en su caso, de CONSULTAS CIUDADANAS. Articulo 70bis.3 LBRL (Ley de Bases de Régimen Local).

Por lo tanto, creemos que en la

HIRIGINTZAKO KUDEAKETAN herritarrei berresteko aurkeztu behar zaiela edozein esku hartze, baldin eta haren aurrekontua udalaren aurrekontuaren % 10a baino handiagoa bada. Izan ere, hauteskundeetan zerrenda bozkatuena izate hutsak ez du erabateko zilegitasuna ematen obra handiak egiteko Getxoko bizilagun guztien bizkar, hauteskundeetan iritzi eta irizpide ezberdinak erakutsi baitituzte.

GESTION URBANISTICA debiera someterse a una ratificación de la ciudadanía cualquier intervención cuyo presupuesto supere en un 10% el presupuesto municipal. Pues el solo hecho de ser la lista más votada en las elecciones no concede una legitimidad absoluta para la ejecución de grandes obras a coste del conjunto de los vecinos de Getxo que ya mostraron su diversidad de opiniones y criterios en las urnas.

Hau gardentasun eta demokrazia ariketa hutsa da. Mahai gainean jartzen dugu, UDAL HAUTESKUNDEETAN BOTOA EMATEKO ESKUBIDEA daukaten bizilagun guztiek euren iritzia eman dezaten udal aurrekontuaren % 10a baino gehiagoko aurrekontua duten udalerriko hirigintzako proiektuei buruz. Horrela Getxoko Udal Araudi Organikoaren 21. artikuluko izapidea saihestuko genuke, TAOLaren 71. artikulua INKESTA baten bidez aipatzen duena, eta ez KONTSULTA baten bidez. Gero herritarren borondatea kontuan izango litzateke, baldin eta BOTO-EMAILEAK azken UDAL ERROLDAREN % 20 baino gehiago badira.

Esto, no es sino un ejercicio de transparencia y democracia que se pone sobre la mesa para que todos los vecinos de Getxo que gocen de sufragio ACTIVO en las ELECCIONES MUNICIPALES muestren su opinión sobre los diversos proyectos urbanísticos del municipio que excedan en un 10% el presupuesto municipal. Salvando así el trámite del artículo 21 del ROM de Getxo que alude al artículo 71 de la LBRL a través de una simple ENCUESTA y no de una CONSULTA, donde posteriormente se tenga en cuenta la voluntad popular siempre y cuando los VOTOTANTES superen el 20% del último CENSO ELECTORAL MUNICIPAL.

Hori guztia TAOLaren 71. artikuluko administrazio-prozedura gorabehera, hori egoerak eskatzen duen guztietan erabiltzera animatzen baitugu udala.

Todo ello sin desmerecer el procedimiento administrativo del arto 71 LBRL Y el cual animamos a utilizar al consistorio siempre que la situación lo requiera.

## GALDE-ESKEAK

Arantza Gutierrezek hartu du hitza eta gogoratu du azkeneko osoko bilkuran erabaki zutela bilkurak, normalean, hileko azken asteazkenean egitea, arratsaldeko 16.00etan, eta lehenbiziko bileran hautsi egin dutela akordio hori,

## RUEGOS Y PREGUNTAS

Arantza Gutiérrez interviene recordando que en el último Pleno se determinó que de forma ordinaria los plenos se celebrarían el último miércoles de mes a las 16:00 horas y que en la primera ocasión se ha incumplido

nahiz eta talde politikoetako ordezkariei kontsulta egin dieten. Azaldu du osoko bilkuren eguna aldatuz gero batzordeenak ere aldatu behar direla eta aldaketa horiek nahaste handiak sortu dizkietela taldeko kideei. Alde horretatik, gogoratu du eskatu zutela hilaren 27ra edo 28ra aurreratzea. Azkenik, alkateari eskatu dio irailean urteko osoko bilkuren datak zehaztea eta, horrez gain, aztertzea Gabonetan eta udaran, adibidez, ohiko datak aldatu beharko diren. Halaber, alkateari eskatu dio beste udaletxe batzuetan egin duten bezala (Bartzelonan, adibidez) eta legeria aplikatuz, udalbatza-aretoan dagoen Juan Carlos I errege ohiaren bustoa kentzea.

dicho acuerdo, aunque admite que se ha preguntado a los representantes de los grupos políticos en este caso. Indica que la alteración de la fecha de Pleno supone también la de las fechas de las comisiones y estos cambios han supuesto a los componentes de su grupo trastornos importantes. Recuerda que pidieron que en todo caso se adelantara al día 27 ó 28. Finaliza la intervención pidiendo al Alcalde que el mes de septiembre se fijen las fechas de los plenos de todo el año, valorándose también si hace falta la necesidad de cambiar las fechas ordinarias en épocas como Navidades, verano, etc. Asimismo, pide al Alcalde que tal y como se ha realizado en otros ayuntamientos como el de Barcelona, y en aplicación de la legislación, retire del salón de plenos el busto del anterior rey Juan Carlos I.

Azken eskari horren gainean, alkateak erantzun dio, legearen arabera, bustoa kenduz gero oraingo erregearena jarri behar dela, eta eskaria horrela ulertu duela. Lehenbiziko gaiari dagokionez, kritikatu egin du arrazoiketa aldaketa egiteko arrazoien inguruko suposizioetan oinarritzea. Jakinarazi du udaran eta Gabonetan ohikoa dela osoko bilkuraren eguna aldatzea, eta talde politikoei kontsulta egin ondoren eta gehiengoak hala erabakita egiten dela. Azkenik, adierazi du eskaria zentzuzkoa iruditzen zaiola, baina zaila dela erabaki hori hartzea, batzuetan bilerak espedienteen izapide administratiboak amaitzen direnean egiten direlako.

El Alcalde, respecto a la última petición, le manifiesta que la retirada del busto implica, en aplicación de la legalidad vigente, colocar el busto del actual rey y en ese sentido interpreta la petición. En relación a la primera cuestión critica que su razonamiento se base en suposiciones acerca de los motivos del cambio. Recuerda que es habitual en verano y en Navidad cambiar la fecha predeterminada de realización del Pleno y siempre se hace tras consultar con los grupos políticos y por un consenso mayoritario. Finaliza indicando que le parece lógica la petición aunque recuerda que adoptar esa decisión no es fácil ya que a veces las fechas vienen determinadas por la cultimación de la tramitación administrativa de diferentes expedientes.

Ondoren, Enrique Pradak alkateari eskatu dio osoko bilkuren egunak

Enrique Prada ruega al Alcalde que tenga en cuenta la posibilidad de

denbora nahikoarekin zehaztea, batez ere udalkideen lanetik liberatuta ez daudenentzako dauzkan eraginengatik.

planificación de las fechas de los plenos con suficiente antelación sobre todo por las implicaciones que tiene para aquellas personas que no están liberadas en su labor de corporativos.

Gero, Iñaki Gamerok alkateari eskatu dio Udalak Luis Amallobieta udaltzaina zoriontzea, polizia eta suhiltzaileen nazioarteko jokoetan urrezko domina lortu duelako arraunketan.

Iñaki Gamero pide al Alcalde que por parte del ayuntamiento se felicite al policía local Luis Amallobieta porque ha conseguido una medalla de oro en remo en los juegos internacionales de policías y bomberos.

Alkateak erantzun dio eskaria aintzat hartuko duela.

El Alcalde responde que tendrá en cuenta la solicitud.

Ibon Rodriguezek esan du osoko bilkuren transkripzioak web-orrian jartzen direla aspaldidanik, eta eskatu du Youtubeko bi kanaletan ere jartzea, herritarrek eskura izan ditzaten: kanal batean euskaraz, gaztelaniazko zatiak itzulita; eta beste kanal batean gaztelaniaz, euskarazko zatiak itzulita. Horren harian, esan du azpitituluak ere jarri beharko liratekeela, entzumen-arazoak dituztenentzat.

Ibon Rodríguez indica que desde hace tiempo que se suben a la web la transcripción de los plenos y pide que se suba en dos canales de You Tube, uno íntegramente en euskera, traduciendo la parte que se expresa en castellano, y otra en castellano, traduciendo la parte que se expresa en euskera, para que los ciudadanos puedan acceder al contenido, así como también que se establezcan subtitulos para aquellas personas que tienen problemas auditivos.

Alkateak erantzun dio eskaria aztertuko dutela.

El Alcalde indica que se estudiará la solicitud.

Oier Iturraldek alkateari eskatu dio legeriaren arabera errege ohiaren bustoa kendu eta oraingo erregearena jarri behar badu, bustoa ahalik eta txikiena izatea. Horrez gain eskatu dio biztanleak zoriontzea, Algortako Sabat eta Pellejo absolbitu dituztelako.

Oier Iturralde pide al Alcalde que si va a cumplir la legislación vigente sustituyendo el busto del rey anterior por el actual, este busto sea de la mínima expresión posible. También le pide que felicite a la población por la absolución de los dos vecinos de Algorta, Sabat y Pellejo.

Alkateak adierazi du jaso duela eskariaren berri.

El Alcalde manifiesta que se da por enterado de la petición.

Gai gehiagorik ez dagoenez,

Y no habiendo otros asuntos de que

Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du eguerdiko hamabiak eta hogei minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las doce horas y veinte minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.